

# Hezkuntza XVI. mendeko Erreterian

IAGO IRIJOA CORTÉS

Historia eta Kultur Ondarean lizentziatua - Ereiten K.Z.

## *Laburpena:*

*Hainbat ikerkuntzek aurreko mendeetako hezkuntzaren nondik-norakoetan argi egiten dihardute. Euskal Herriari buruzko ezagutza handitu da, baina hutsuneak agerikoak dira oraindik. Gipuzkoan iluntasun hau nabarmena da, bereziki XVI. mendeari dagokionez. Zorionez, informazioa egon badago, eta hainbat lekutan gaia nola jorratu zen jakiteko aukera dugu. Egoera honetan dugu Erreteria hiribildua. Bere udal aktetan gaia jorratzeko informazio goiztiarra eta ugaria gordetzen da. Ondorioz, dokumentazio hori ardatz eta iturri nagusi hartuta, datozen paragrafoetan bertako eskola, maisu eta ikasleen berri emanen dugu.*

*Gako-hitzak: Erreteria. XVI. mendea. Hezkuntza. Eskolak. Maisuak.*

## *Resumen:*

*Poco a poco vamos conociendo mejor la dinámica relativa a la educación de los siglos pasados. Sin embargo, aunque nuestro conocimiento ha aumentado, a nivel de Euskal Herria seguimos teniendo bastantes lagunas. En Gipuzkoa, por ejemplo, el tema está poco estudiado, especialmente en lo que respecta al siglo XVI. Afortunadamente contamos con información que permite abordar la situación de diferentes poblaciones. Una de ellas es Erreteria, cuyas actas contienen abundante y temprana información. Tomándolas como fuente principal, a través de ellas analizaremos datos relativos a las escuelas, los maestros y los alumnos.*

*Palabras-clave: Erreteria. Siglo XVI. Educación. Escuelas. Maestros.*

*Summary:*

*Step by step our knowledge about the education processes of the past centuries is being bigger. However, even if last years have seen different researches about the subject, Basque Country still has several shadows. This lackness is remarkable for Gipuzkoa, specially for the XVIth century. Fortunately, some places have information that permit us an approach to the question. Erreterria is one of these cases. Thanks to its council minutes, we have an early and rich information. Taking them as main source, through the next lines we will have the chance to speak about the schools, teachers and students.*

*Keywords: Erreterria. XVIth century. Education. Schools. Teachers.*

**Laburdurak / Abreviaturas / Abbreviations:**

Ald.: alderatu

ARChV.: *Archivo de la Real Chancillería de Valladolid*

at.: atzealdea

au: aurrekaldea

BBNN: Gipuzkoako Batzar Nagusiak

EUA: Erreterriako Udal Artxiboa

GAO-AGG: Gipuzkoako Artxibo Orokorra-*Archivo General de Gipuzkoa*

GFA: Gipuzkoako Foru Aldundia

GPAH-AHPG: Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa-*Archivo Histórico de Protocolos de Gipuzkoa*

**Hezkuntza XVI. mendeko Erreterrian\*****0. Sarrera**

Azkeneko hamarkadetan, iraganean izan ziren alfabetizazio prozesuen eta hezkuntzaren inguruan hainbat ikerkuntza burutu dira. Artikulu

---

(\*) Gure eskerrik beroenak GPAH-AHPG-ko arduradun den Ramon Martín Suquiari eta Leonor García Erreterriako artxibozainari, artikulu honetan beraien dokumentazioaren irudiak argitaratzen uzteagatik. Halaber, gure esker ona Txomin Ganborena eta Joxe F. Garmendiari, gure galderei erantzuteagatik.

espezifikoez zein herri, hiri edo hiribilduen inguruan egin diren monografia ezberdinek datu batzuk eman dituzte argitara. Oraindik baina, gutxi ikertutako gaia dugu, eta Euskal Herria ez da salbuespena izan, ekarpenak ekarpen. Ondorioz, eta pixkanaka gaian sakontzen ari bagara ere, hutsuneak badira, bereziki Erdi Aro eta Berpizkunde garaiei dagokienez<sup>1</sup>.

XVI. mendean zehar hezkuntzak kezkak eta garapena ezagutu zituen. Hasierako hamarkadetan Humanismoaren eraginak garrantzia handia izanen

---

(1) Euskal Herriko testuinguru orokor baterako ikus *Auñamendi-Enciclopedia General Ilustrada de Euskalerrria, X. liburukia*. Donostia, 1978, Auñamendi, 558 orr. eta hh. eta dagoeneko klasiko bihurtu den LASA, J. I.: *Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco*. Donostia: Auñamendi, 1968.

Euskal historialarien aldetik gutxi ikertutako gaia dugu, ordea. Gure garairako azpimarragarriena, zalantzarik gabe, AZPIAZU ELORZA, J. A.: “Las escuelas en el País Vasco a principios de la Edad Moderna. El interés por la enseñanza por parte de instituciones y particulares”. In: *Vasconia*, 27 (1998), 147-164 orr., dugu. Behe Erdi Aro eta Aro Berri hasierarako berriz, hutsunea askoz nabarmenagoa da. Ald. GARCÍA FERNÁNDEZ, E.: *Gobernar la ciudad en la Edad Media: Oligarquías y elites urbanas en el País Vasco*. Vitoria-Gasteiz, 2004, Arabako Foru Aldundia, 147 orr. eta hh.; ORELLA UNZUÉ, J. L.: “Geografías mercantiles vascas en la Edad Moderna (II): Los marinos y mercaderes vascos”. In: *Lurralde*, 26 (2003), 178-179 orr. (143-180); Díez de SALAZAR, L. M.: “Régimen municipal en Guipúzcoa (s. XV-XVI)”. In: *Cuadernos de Sección. Derecho*, 1 (1984), 75-129 orr., bereziki II. eta III. eranskin dokumentalak eta AYLLÓN IRANZO, A.: “El régimen municipal”. In: HH. EE.: *Estudio de Historia de Urretxu en su VI centenario*. Urretxu, 1986, Urretxuko Udala-GFA, 175 orr. (145-178).

Nafarroa da, ezbairik gabe, ikerkuntza gehien jaso dituen lurraldea. Ikus, besteak beste, LASPALAS PÉREZ, F. J.: “Escuelas y maestros de primeras letras en Pamplona (1557-1650) (1)”. In: *II. Euskal Mundu-Biltzarra. Euskal Herriaren Historiari buruzko Biltzarra. III. Alea: Economía, Gizartea eta Kultura Antzinako Erregimenean*. Donostia, 1988, Txertoa, 491-500 orr.; LASPALAS PÉREZ, J.: “Aspectos socio-económicos de la enseñanza de primeras letras en Pamplona (1551-1650)”. In: *Historia de la Educación. Revista universitaria*, 8 (1989), 181-197 orr.; GÁRRIZ YAGÜE, M.<sup>a</sup> R.: “Las escuelas de primeras letras en Navarra (1575-1625)”. In: *Primer Encuentro sobre Historia de la Educación en Navarra*. Iruñea, 2001, Nafarroako Gobernu-SEHN, 69-83 orr. edota VERGARA CIORDIA, J.: “La Historia de la Educación en Navarra y su dimensión historiográfica (Edades Media y Moderna)”. In: *Primer Encuentro...*, aip. lan., 33-68 orr. (non bibliografía atal interesgarri bat txertatzen den). Haez gain, José María Jimeno Juriok argitaratu emandako datu batzuk azpimarratzekoak dira. Ikus, besteak beste: *Navarra, Gipuzkoa y el Euskera. Siglo XVIII*. Iruñea, 1998, Pamiela eta *Navarra. Historia del euskera. I. Personalidad y lengua*. Iruñea, 2006, Pamiela, Udalbide eta Euskara Kultura Elkargoa.

Espainia mailan, eta Erdi Aroari dagokionez, aipagarriena agian BECEIRO PITA, I.: *Libros, lectores y bibliotecas en la España medieval*. Murtzia, 2007, Nausícaá, eta duela gutxi Betsabé Caunedo del Potrok argitaratutako artikulu batean topatu daitezkeen aipamenak. Ikus CAUNEDO DEL POTRO, B.: “Mercaderes castellanos: algunos aspectos de su formación teórica”. In: BONACHÍA HERNANDO, Juan A.; eta CARVAJAL DE LA VEGA, D. (arg.): *Los negocios del hombre. Comercio y rentas en Castilla (siglos XV y XVI)*. Valladolid, 2012, Castilla Ediciones, 37-51 orr.

du eta lorratz horri jarraituz, erlijiosoek zein laikoek hezkuntza hedatzearen inguruko ardua handiago bat erakutsi zuten<sup>2</sup>. Trentoko Kontzilioak eta Kontraerreformak aldaketa ekarriren dute eta egoerak atzeranzko bidea egin zuten. Erreformaren aurkako pentsamoldeak alfabetizazioa gizartearen erlijio-osasuna arriskuan jartzen ari zen elementutzat zuten, eta horrez gain, eskulanenganako mespretxua areagotzen eta gizarte mugikortasunaren nahi faltsu bat bultzatzen zuten eragilea zela pentsatzen zuten. Arlo horretan krontol zorrotza ezarriren da eta honen ondorioz, egile batzuen ustetan XVII. mendean hiritar munduko gizarte maila apalenen kulturak sekulako atzerakada ezagutu zuten<sup>3</sup>. Dena den, Kontraerreforma hezkuntzaren garrantziaz jabetu zen eta bere interesak babesteko (protestantismoari aurre egiteko) plangintza burutzeko bazen ere, hezkuntzari lotutako hainbat ekimen bideratu zituen. Honela, hezkuntza (eta bereziki elizgizonen formakuntza) ezinbertzeko tresna bilakaturen da Katolizismoaren zaindaria bihurtu zen Gaztelako Koroako agintarientzat.

Bestenaz, Jesuitek berrikuntza pedagogikoan berebiziko garrantzia izan zuten. Loiolako Iñigok sortutako erakundeak doako hezkuntza bultzatu zuten, eta gainera ez zuten inor bere egoera ekonomikoagatik baztertzen. Ordena hau izan zen Iruñean finkatu eta gutxira, 1580an, Anuntziada ikastetxea sortu zuena; Bergaran, aldiz, Jesusen Lagundia hezkuntzarekiko interesa areagotzearen eragile bihurtu zen<sup>4</sup>.

(2) BERPIZKUNDE garaiko testuinguruari dagokionez, ikus DELGADO CRIADO, B. (koord.): *Historia de la Educación en España y América, vol. 2: La educación en la España Moderna (Siglos XVI-XVIII)*. Madril, 1993, Fundación Santa María - Ediciones SM; REDONDO, A.: *La formation de l'enfant en Espagne aux XVI<sup>e</sup> et XVII<sup>e</sup> siècles. Colloque International (Sorbonne et Collège d'Espagne, 25-27 septembre 1995)*. Paris, 1996, Publications de la Sorbonne.

(3) TAPIA, S. de: "La alfabetización de la población urbana castellana en el Siglo de Oro". In: *Historia de la Educación. Revista interuniversitaria*, 12-13 (1993-1994), 275-307 orr. VERGARA CIORDIA, J., aip. lan., 48-49 orr.; ESTEBAN, L.; eta LÓPEZ, R.: "La educación institucional". In: DELGADO CRIADO, B. (koord.), aip. lan., 159 orr. eta hh.

Beste egile batzuk Trentok neska eta emakumeen hezkuntzan izan zuten eragin negatiboa edo atzerakoa ere azpimarratu dute. Ikus SEGURA GRAÑO, C.: "La educación de las mujeres en el tránsito de la Edad Media a la Modernidad". In: *Historia de la educación. Revista universitaria*, 26 (2007), 65-83 orr. Halaber, badirudi BERPIZKUNDE garaian gizarteko talde apalenek duela gutxi arte uste zena baino alfabetizazio maila handiagoa izan zutela. Ikus TAPIA, S., aip. lan., 281 orr., bereziki 35 oharra.

(4) Jesuiten ikastetxerako ikus VERGARA CIORDIA, J., aip. lan., 51-57 orr. eta bereziki IDEM: "Humanidades y profesorado en los jesuitas de Pamplona (siglos XVI-XVIII)". In: *VII Congreso General de Historia de Navarra. Historia Moderna Historia Contemporánea. Historia de la Educación. 1512. Vol. II. Príncipe de Viana*, 254 (2011), 449-463 orr.; AZPIAZU ELORZA, J. A., aip. lan., 162-164 orr. Halaber, Nafarroako hiriburuak 18 ikasle txiroentzako ikastetxea sortu zuen Katedraleko ospitalerian 1551n, eta leku berean neskenzako bat sortzeko asmoa agertu zen. *Auñamendi...*, aip. lan., 426-428 orr.

Egoera honez gain, gure artean hezkuntza edo, hobe erranda, alfabetizazioari lotutako hainbat xedapen emanen dira. XVI. mendeak aurrera egin ahala maila politikoetan eraginen duten neurriak areagoturen dira. Honela, udal zein probintzia-karguetan aritzeko ezarriren diren baldintzak gogortzeari ekinen zaio. Ehun urte horren hasieratik, Probintziako batzarkide izateko teorikoki irakurtzen eta idazten jakin behar zen; gaztelaniaz irakurtzen eta idazten jakitea, alegia. Honek, hainbatetan aipatu den bezala, bi muga zekartzan, gizartearen gehiengoa alfabetatu gabea egoteaz gain euskaldun elabakarra baitzen. Halaber, irakurtzen eta idazten jakiteak bertze baldintza bat ezartzen zuen, alfabetatua zegoen gizartearen portzentzia txiki horrek bertze mailaketa bat baitzuen. Askotan irakurtzen eta idazten jakitea batera ikasten zirela pentsatzen dugu, baina aurreko mendeetan hezkuntzaren bi fase ezberdin osatzen zuten. Honela, irakurtzen zekien jende guztiak ez zuen, nahi eta nahi ez, idazten jakin behar<sup>5</sup>.


Halako baldintzak probintzia mailatik udal esparrura hedaturen dira. Pixkanaka hiribilduek, beraien ordenantzen bidez, udal-karguetan hautesle zein hautetsi izatearen inguruan geroz eta araudi zehatz edo zorrotzagoak ezarriren dituzte. Prozesu honek hainbat ardatz izanen ditu, tartean alfabetizazioarena. Honela, irakurtzen zein idazten jakitea beharrezko bihurturen da udalbatza osatzen duten ofiziorik garrantzitsuenetan aritzeko. Prozesu hau ez zen bat-batekoa izan, ezta uniforme ere. Araudi teorikoa eta praktika bi gauza ezberdin izanen dira eta, horrez gain, hainbat hiribildutan itxiera prozesu hori martxa edo bide ezberdinak eginen ditu.

Erreterian adibidez, 1518 eta 1544ko ordenantzei so eginez, ez dugu halako baldintza zehatzik topaturen; ez behintzat kargu guztietarako<sup>6</sup>. Dena den, alkateek eta hamabi nagusiek alfabetatuak egon behar zuten, beraiek baitziren –eskribauarekin batera– udal aktak zinpetzen zituztenak. Horrek ez du erran nahi guztiek ezagutza berdina zutenik. Kideen sinadurak ikusi bertzerik ez dago alfabetizazio maila ezberdinak zeudela antzemateko; 1521 urtean mera izan zen Juan Ierobikoarenak, adibidez, oso idazkera maila eskasa islatzen du, **I. irudian** ikus dezakegunez.

(5) Ildo honetatik, ikus VERGARA CIORDIA, J., aip. lan., 60 orr. eta LASA, J. I., aip. lan., 9-10, 16 eta 38-39 orr.

(6) IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erreteria a inicios de la Edad Moderna 1495-1544*. Erreteria, 2012, Erreterriako Udala (<http://www.erreteria.net/eu/html/41/3863.shtml> helbidean eskuragarri). Gipuzkoa mailan, ald. SORIA SESÉ, L.: *Derecho municipal guipuzcoano (categorías normativas y comportamientos sociales)*. Oñati, 1992, HAAE-IVAP, 392 orr. eta hh.

## I Irudia: Sinadurak



1521 urteko ekaineko eskritura honetan, primeran islatzen da pertsona bakoitzaren alfabetizazio maila. Martin Irizarkoa eta Martin Lubelzakoa eskribauaren artean, simplea bezain xumea den Juan lerobikoaren sinadura dugu, “l”, “n” eta “o” batez osatua (Iturria: EUA, A-1-1, 4 au.).

Bi kargu horiez gain, gure hiribilduko udalbatza osatzen zuten bertze ofizialak errejidoreak ziren. Hauek ez zuten nahitaez idazten jakin behar, ez baitzuten aktak derrigorrez zinpetzeko ardurarik. Halaber, XVI. mende hasierarako egin den azterketa prosopografikoak hagitx ongi islatzen du hainbat abizenek errejidore karguak hartu zituztela, baina alkate edo hamabi nagusi moduan apenas aritu zirela. Hau da, hiribilduko alor politikoan parte hartu zitekeen baldintza kultural txikiekin. Hori bai, familia batzuk esparru politiko anitzetan jardun baziren, bertze batzuen papera hagitx mugatuagoa zen. Errejidoreek mera eta hamabi nagusiekiko zuten ezberdintasuna adibide liluragarri batean dugu; Martin Ezkurrakoa errejidoreak 1547ko ekainaren 22an bilerak euskaraz ospatzeko eskaeran, hain zuzen ere:

“Este dicho día e lugar, ante sus merçedes paresçió presente el dicho Martín d’Ezcurra e dixo que requería a sus merçedes que *pues sabían que a él no se le entendía la lengua castellana, que en todo el tiempo que estubiesen en rregimiento e hablasen en las cosas tocantes al conçejo hablasen en basquençe*, donde no, qu’el se esimía de qualquier daño que le podría benir a cabsa d’ello”<sup>7</sup>.

Udalbatzaren erantzuna zein izan zen ez dakigu, baina Ezkurra hilaren 28an ospatu zen hurrengo batzarrean ez ezik, ondongoetan ere parte hartzen ikusiren dugu, bilerak euskaraz egiten zirelaren seinale<sup>8</sup>. Ezkurrak ez zekien

(7) EUA, A-1-4, 119 at.

(8) Ikus ibidem. Badirudi aste batzuk lehenago Ezkurrak udalbatzarretara joateari utzi ziola eta honen ondorioz, udalbatzak “iheslari” moduan hartu zuela. Martinek, orduan, bileretara ez joateko arrazoitzat jaso dugun hori eman zuen; alegia, berak gaztelaniarik ulertu ez, eta beraiek gaztelaniaz egiten zutela. Ondorengo asteetan bileretan ikusteaz gain, hurrengo urteetan

...

idazten eta, beraz, argi dago maila politikoan nahiko irekia zen gizarte baten aurrean gaudela. Zer erranik ez bere eskaerak aintzat hartu zirenean.

Errenteriaren adibidea jarri badugu, hiribildu hau ondorengo lerroetan hizpide izanen dugulako da. Hainbat lanetan azpimarratu da bera dela, Probintzia esparruan, eskolari buruzko lehen datua duena, 1523-1527 artekoa<sup>9</sup>. Gainera, XVI. mende hasieratik gordetzen ditugun udal aktek (Gipuzkoan zaharrenetariakoak direnak) informazio iturri baliotsua osatzen dute gaia ikertzeko. Dokumentu hauek izanen dira gure oinarri dokumental nagusia, baina hainbat muga dituztenez, ondorengo lerroetan gure begirada eta helburuak horietara moldatuko ditugu. Batetik, lehen hezkuntzaz jardungo gara; hau da, oinarriko idazkera, irakurketa eta matematika ikasketei buruz. Gure auzotarrak aritu ziren gramatika ikastetxeak edota unibertsitateak alde batera utziren ditugu<sup>10</sup>. Bertzetik, helburuak soilik historikoak ez dira, ez pedagogia sistemen edo alfabetizazioaren ingurukoak<sup>11</sup>. Edonola ere, ikerkuntza historikoen antzera, gaiaren inguruko nondik-norakoak anitz dokumentutan topatu ditzakegu; hauen bidez datu osagarriak eskuratzen dira eta gure ikerketa hobeto jorratzeko balioko zaizkigu.

...

Ezkurrak errejidore edo errejidoreorde kargua hainbatetan bete zuen. 1534an ikusten dugu lehen aldiz kargu horretan eta 1552ra arte, gutxienez, halako lanetan jardun zen: 1547ko kexuak errejidoreorde moduan aurkezten zituen. Urte horretako urrian berriz ere errejidore baten ordezko aukeratu zuten. Diruzain edo diruzainorde izan zen 1548 eta 1549an, eta errejidoreorde 1548an. Ikus, bertzeak bertze: EUA, A-1-4, 5 at.-6 at., 110 at.-111 au., 118 at.-119 au., 148 at.-149 at.; A-1-3, 57 au., 59 au., 63 au.-at eta 61 au.; eta A-1-6, 8 at.-9 au. 1552ko daturako, A-1-6, 76 at. eta A-1-3, 85 au. Argi dirudi, beraz, nagusiki bilerak euskaraz egiten zirela.

Honen ildotik, gaztelaniaren ezaguera maila eskribauetan beraietan antzeman daiteke; idazteko moduek (idazkera, adierak, sintaxia, moldeak...) askotan hitzez hitz eta mentalki egindako itzulpenak ezkutatu ditzakete. Dena den, honek guztiak ez du erran nahi hiribilduko gobernua erdararen inguruko neurri edo ekimenik hartu ez zuenik; ondorengo lerroetan ikusiren dugun moduan, maisuen lanen artean gaztelania eta gaztelaniaz irakastea zegoen.

(9) GOÑI LARRAÑAGA, J.: *Historia de Rentería*. Donostia, 1969, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 93 orr.

(10) Ikastetxe horien inguruan, ikus LORENZO PINAR, Fco. J.: “La educación en Toro en el siglo XVI: las primeras letras y el estudio de Gramática”. In: *Historia de la Educación. Revista Universitaria*, 7 (1988), 107-121 orr.

(11) Azken esparru hau, zalantzarik gabe, XVI. mendeko Errenteriarako ditugun notario-protokolo eskasen eraginez. Ald. TAPIA, S., aip. lan., zalantzarik gabe alfabetizazioaren inguruan lanik eredugarrienetako bat.

Arreta txikia izan duen gaia izaki, zaila zaigu Erreterriako kasuak eskaintzen dizkigun datuak Gipuzkoako bertze populazio guneein alderatzea, bere osotasunean bederen. Ikertzen dugun garaian lehen hezkuntza hau lekuan lekuko udalbatzek edo parrokiek antolatu eta bideratu zuten eta horregatik, prozesuaren nondik-norakoa ezagutzeko, gaia propio jorratu duten ikerkuntzen ezean, azterketa mikrohistorikoak ezinbertzeakoak zaizkigu<sup>12</sup>. Horiek horrela, eta dokumentazio aldetik Oarsoaldeko populazio guneari ezohiko adibidea osatzen duenez, gure kronologia esparrua XVI. mende osora zabaltzea erabaki dugu. Batetik, 1550etik aurrera datuak ugariagoak direlako eta hezkuntzaren nondik norakoaren ezagueran sakontasun handiagoarekin sar gaitezkeelako. Bigarrenik, epea zabaltzeak bertze lekuetan egin diren ikerkuntzekin alderaketak egiteko aukera eskaintzen digulako<sup>13</sup>.

Honek guztiak testuinguru jakin bat du, gaurengoko herriak XV. mendearen bigarren erdialdetik aurrera berebiziko bultzada eta garapen ekonomikoa izaten ari den hiribilduarekin zerikusi askorik ez duela gogoratu behar baitugu. Mende luzez itsasora begira zegoen herria izan zen; ura (gazia nahiz geza) ate joka zuen, literalki. Baina horrez gain, XVI. mendeko anitz biztanleren jardunak, familia edo leinu nagusienek tartean, harekin zerikusia zuten ogibideetan oinarrituak zeuden: gure auzoak arrantzan edo hainbat ontzitako eskifaien partaide moduan ikus ditzakegu, baina ez dira gutxi itsas-merkataritza eta garraioan jarduera garrantzitsuak izanen dituztenak; honela, beraien etxeetatik hagitz urrun zeuden lekutara iritsi ziren, bereziki Ingalaterrara baina baita bertze hainbatara, Afrika Iparraldera kasu.

Merkataritza-negozioen oparotasuna bermatzeko gure auzoei ezinbertzekoa izanen zaie hainbat tresna erabiltzea, hala nola zenbatzen jakitea. Europan zehar halako prestakuntza izateari hainbat mende lehenagotik garrantzia ematen hasi zitzaion. Ondorioz, merkataritza leinu edo familia nagusienetako hainbat eta hainbat kide geroz eta formatuntza hobea izanen dute. Prestaketa honek hagitz isla argia izanen du dokumentazioan, erabili zituzten kontu-liburuak horren adierazle ezin hobea direlarik. Euskal Herrian badugu horien berri baina zoritxarrez, guregana iritsi direnak banaka batzuk baino ez dira<sup>14</sup>.

(12) LASPALAS PÉREZ, Fco. J.: “Aspectos socio-económicos...”, aip. lan.

(13) Ald. LORENZO PINAR, Fco. J., aip. lan.

(14) Ald. IRIJOA CORTÉS, I.: “Fuentes inéditas para el estudio de mercaderes guipuzcoanos a fines de la Edad Media: una aproximación al libro de registros de Juan Ibáñez de Hernani (1495-1503)”. In: BONACHÍA HERNANDO, Juan A.; eta CARVAJAL DE LA VEGA, D. (arg.), aip. lan., 147-173 orr., bereziki 147-149 orr.



Ildo beretik, eta XVI. mendean sartzen goazen heinean, liburuen inguruan datuak ugariaren zaizkigu. Errenteriako kasuan, 1561 urtean hil zen Juan Ierobikoa bikarioaren kasua dugu, hiltzerako garaian, bizitzan zehar osatutako liburutegia karguan oinordeko zitueni doaintzan utzi baitzien<sup>15</sup>.

Honela, garraiolari zein merkataria familia garrantzitsuak zituen populazio gune batek, letren mundura lotuta zeuden leinuekin batera, hezkuntza edo formakuntza apropos bat hartzearen garrantziaz jakitun izatea guztiz normala da; gutxienez oinarritzko jakintzan; irakurri, idatzi eta zenbatzean alegia. Halako formakuntza izanez gero negozioak hobeto bideratzeko aukera zegoen, leinuko kide ezberdinak hainbat lan edo unibertsoara bideratu zitezkeen eta, horrez gain, alfabetatutako pertsonak gizartearen maila apalenetan bizi ziren beraien familien etorkizuna nolabait bermatu zezaketen<sup>16</sup>.

Hezkuntzari buruzko kezka hauek goiz agertuko ditu gure hiribilduko udalbatzak, eta 1523 edo 1524ko aktetan irakasleari buruzko informaziorik ez badugu ere, laster izanen ditugu lehenengo aipuak, 1527ko ekainean hain zuzen ere<sup>17</sup>. Hainbat eta hainbat lekutan elizgizonek izan zuten hezkuntzaren ardura, baina gurean udalbatzaren ekimena izan zen esparru hori bultzatu zuena. Bera zen arduradun nagusia, baina bertze alor batzutan gertatzen zen bezala, auzotarren udalbatzar irekiek nolabaiteko eskumenak mantendu zituzten<sup>18</sup>.

(15) 1567ko ekainaren 10ean, adibidez, Gillen Tolosakoa bikarioari Ierobik utzitako liburutegia jasotzeko mandatua eman zitzaion, erdi eraitsita zegoen etxe batean baitzegoen, hezetasuna eta hautsa pilatuz. Antza denez, bikarioak Martin Arangibelgoa batxilerrari utzi zion eta hau urte bat baino gehiagoz hiribildutik at zeramanez, liburuak kalteak pairatzen ari ziren: “este día (...) se hizo rrelación diziendo que la librería qu’el bicario don Jhoan de Yerobi dexó para la yglesia d’esta dicha villa entregó al bachiller don Martín de Aranguibel, el qual como a más de un año que está fuera d’esta villa y tiene la dicha librería en vna casa yerma que con la vmedad y polbo y combenía se entregase a alguna persona que los tubiese a buen rrecaudo. Sus merçedes (...) llamaron a don Guillén de Tolosa, vicario, al qual le encargaron para que los rescibiese a su poder y los tubiese en su poder...”. (EUA, A-1-9, 78 at.). Zoritxarrez, ez dugu liburutegi honen inguruko daturik topatu. Edonola ere, elizbarrutiko edo elizako artxiboan begiratu beharko litzatekeela uste dugu. Beste hainbat daturako, ikus ibidem, 232 au. (1572ko uztaialak 23) edota 255 at. (1573ko maiatzaren 27-a). Era berean, liburutegi pribatuen gaia ere oso gutxi ikertua dugu, bereziki XV-XVI. mendeetarako.

(16) Merkatarien hezkuntzarako, ikus CAUNEDO DEL POTRO, B., aip. lan., 37-51 orr.

(17) EUA, A-1-2, 161 au. (ekainak 5). Ildo honetatik, azpimarratu nahi dugu data batetik aurrerako datuak izatea ez duela erran nahi aurretik halako ekimenik sortu ez zenik. Ald. LASPALAS PÉREZ, Fco. J.: “Aspectos socio-económicos...”, aip. lan., 182-183 orr.

(18) Bertze hainbatetan bezala, udalbatzar ireki horiek errejimenduak aurretik adostutako neurria baieztatzeko tresna ziren; honela, “herria” edo “Errepublikan” alkatere, hamabi nagusi

...

## 1. Irakasleak

Ikerkuntza ezberdinetan maisu lanetan zebiltzanen soldata eskasa eta baliabide urriak aipatu izan dira; are gehiago, behin baino gehiagotan azpimarratu da hainbat eta hainbat irakasleren formakuntza eza<sup>19</sup>. Horretan zihardutenek anitzetan bertzelako lanak betetzen zituzten, edo irakasle jarduna ez zen beraien egiteko nagusia. Modu honetan, hamaika ezaugarri ezberdineko pertsonak aritu ziren haurrak hezten. Batzuetan elbarriak aukeratzen ziren, hau da, bertze ogibideetarako ezinduak zeuden pertsonak; bertzetan ofizio edo ogibide ezberdinetako maisuak (aiztogileak, zapatarriak...); letren munduari lotutakoak izan zitezkeen, jakina (eskribauak, liburu-saltzaileak...); halaber, erlijioari atxikitutako lanak burutzen zituztenak zeuden (organo-joleak, sakristauak, kanpai-joleak edo apaizaren otseinak); eta batzuetan soldaduak ere lan horretara bideratu ziren, Iruñean kasu<sup>20</sup>. Baina hala eta guztiz ere, baziren titulua zuten maisuak, elizgizonak edo laikoak izan zitezkeenak. Errealitate honen guztiaren adibide bat Juan Amenduzekoa nafarrak ematen digu. Euskarazko olerkien egile honek Iruñean ikasi zuen Juan Maiakoa sakristauarekin 14 hilabetez, 1552-1553 artean. 1553tik aurrera, berriz, Tuteran egon zen eskolak hartzen Pedro Afrikakoa liburu-saltzailearekin; honen etxean jardun zen idazten eta zenbatzen. Urte batzuk beranduago, 1556an, Iruñean jarraitu zuen bere formakuntza Martin Bidal maisuarekin, hilabetez<sup>21</sup>.

...

eta errejidoreen gainetik zegoelaren isla sinbolikoa ematen zen. Batzuetan ordea, erabakiak bilera ireki batean hartzen ziren. 1548ko irailean halako udalbatzarra ospatzea adosten zen, Juan Osoa Urangakoari idatzi eta Elgoibarren zegoen eta “eskribau garrantzitsu eta kontulari” zen maisu batekin hitz egin zezan, hau kontratatzeko helburuarekin (EUA, A-1-4, 187 at.-188 au. folk.). Era berean, 1561ko abuztuko bilera Antonio Bergarakoarekin maisu gisa jarduteko hitzarmena ikusteko helburuarekin antolatu zen. Azkenik, 1562ko abenduaren 30ean Bergara bera kalera eta maisu berria bilatzea batzar ireki batek erabaki zuen (EUA, A-1-8, 18 au. eta 80 at. folk.). Bilera hauen inguruan, ikus IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D., aip. lan., bereziki 180 orr. eta hh.

(19) Ikus, bereziki, LOPEZ ATXURRA, R.: “Historia de las instituciones educativas en Euskal Herria. La enseñanza primaria en el Antiguo Régimen. Pautas para la investigación”. In: MIEZA, R.; eta GRACIA, J. (arg.): *Haciendo Historia. Homenaje a M.<sup>a</sup> Angeles Larrea*. Bilbo, 2000, EHU, 428-430 orr. (419-445).

(20) LASPALAS PÉREZ, Fco. J.: “Aspectos socio-económicos...”, aip. lan., 183 orr. TAPIA, S. de, aip. lan., 278 orr.

(21) JIMENO JURÍO, J. M<sup>a</sup>.: *Navarra. Historia del euskera...*, aip. lan., 79-81 orr.

Gure kasuan, udal-eskolaren inguruan ditugun datuek maisu gehienak laikoak zirela jasotzen dute, eta profesionalak dira. Salbuespenak izan ziren, jakina. Hor dugu Juan Bizkaiakoa elizgizona, zeina udal-maisu bezala hilabete gutxi batzutan ibili zen. Letren munduari lotutako pertsonak ere baditugu jardun horietan, Hernando Madrilgoa eskribaua, adibidez<sup>22</sup>. Edonola ere, esku artean dugun informazioarekin eskolak emateko prestakuntza zuten pertsonak kontratatzen zirela ondoriozta daiteke, jardun horretan propio edo hein handi batean aritzeko asmoz.

Horretarako, hiribilduko gobernuburuek hamaika lekutatik ekar zeza-keten hezkuntza arduraduna. Ildo honetatik, ezaguna da maisu lanbideak behin-behinekotasun nabarmena zuela eta leku batetik bertzera zebiltzan pertsonak zirela. Gure hiribildurako ditugun datuen arabera ia gehienak gipuzkoarrak ziren, tartean jatorri iluneko Hernando Madrilgoa bera<sup>23</sup>. Baina, ezbairik gabe, Deba bailarako hainbat hiribidildu izan ziren Erreterriak kontratazio gune moduan buruan izan zituenak, batez ere Elgoibar eta Bergara. XVI. mende erdialdetik aurrera eskualde horrek hezkuntza arloan garapen nabarmena izan zuela dirudi, eta bertako hiribilduek bultzada jaso zuten halako profesionalak sortzerako garaian.

Erreterriako udalbatzak 1548ko irailaren 26an udalbatzar ireki bat ospatzea erabaki zuen. Helburua Juan Otsoa Urangakoari idaztea zen, Elgoibarren zegoen eskola-maisu batekin hitz egin zezan, hau kontratatzeko asmoz. Agidanez “eskribau bikaina” (“*gran escribano*”) zen. Hainbat urte beranduago, 1585eko martxoaren 20tik aurrera, hiribildu horretako auzotar Migel Igartuakoa izanen dugu errient gisa. Dirudenez, Elgoibarrek bazuen hezkuntzaren inguruan berebiziko kezka; honen adierazle jarri da hiribildu horrek korrejidorearen aurka 1577 inguruan

---

(22) Bertze argitalpen batzuetan, eta bere jatorri atzerritarra kontutan hartuta, “Hernando de Madrid” jarri badugu ere, dokumenazioan bere ondorengo abizena “Madrid” euskal eran ikusi dugu; hau dela eta, artikulu honetan beti “Hernando Madrilgoa” erabiliren dugu.

(23) 1528ko informazioek kristau berrien familia baten ondorengo moduan aipatzen dute, baina garai horretan Erreterriako auzo moduan azaltzen zaigu, eta auzotasuna jatorri kanpotar batekin kontrajarria ez badago ere, guk bertakotzat hartu dugu. Ikus ORELLA UNZUÉ, J. L.: *Las raíces de la Hidalguía Guipuzcoana. El control de judíos, conversos y extranjeros en Guipúzcoa durante el siglo XVI*. Donostia, 1995, Deustuko Unibertsitatea, eta bereziki IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D., aip. lan., 466-467 eta IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: “Erreterria XVI. mende hasieran: merkataritza eta gizartea / Erreterria a inicios del siglo XVI: comercio y sociedad”. In: *Bilduma*, 24 (2012), 100-101 orr. (ale monografikoa; lerro hauetan uskarazko testua jarraituren dugu).

izan zuen auzia, maisu lanetan zebilen pertsonari egindako ordainketak zirela eta<sup>24</sup>.

Hala ere, benetako kontratazio puntua Bergara zela ematen du. Agerian geratzen da, beraz, Jose Antonio Azpiazuk bere garaian hiribildu honi hezkuntza mailan eman zion garrantzia<sup>25</sup>. Ziurtasunez baieztatu ez badezakegu ere, Erreterian jardun zen lehenengo bergararra Antonio Bergarakoa izan daiteke, 1561ko abuztuan agertzen zaiguna<sup>26</sup>. Hurrengo urte eta hamarkadetan Deba bailarako hiribildu hau gunen lehenetsia izan zen. Erretereriako udalbatzak 1563ko irailaren 7an hango auzotar zen Andres Irazabalgoarekin egin zuen hitzarmena, hainbat hilabetez bilaketa lanetan ibili ondoren<sup>27</sup>. Juan Tobalinakoa ere hangoa dugu<sup>28</sup>. Honek 1572ko ekainaren 18an bere burua aurkeztu zuen irakasle lanetan aritzeko, eta udalbatzak hurrengo egunean kontratatu zuen; ez dakigu, ordea, bere jarduna guztiz burutu zuen ala ez, hilabete batzuk beranduago, urrian, Diego Gartzia Lasakoa azpeitiarraren jarduna hasi baitzen<sup>29</sup>. 1590eko urtarrilean berriz, Martin Muruakoari Bergarako eskola-maisuarekin biltzea agintzen zitzaion hau kontratatzeke asmoz, azkenean Azpeitiko auzotar bat aukeratu bazen ere. Bergara, beraz, erreferentzia-puntu garrantzitsua zen, bai hamaika lekutako ikasleak hartzeko zein beraien lana hezkuntzara bideratzen zuten auzotarrek bertze gunen batzuetan jardun zitezen.

Baina Elgoibar edo Bergaraz gain, Erretereriak hainbat maisu bertze hiribildu batzuetatik ekarri zituen. Agidanez udalbatzak ez zuen Elgoibarren zegoen eskribau garrantzitsu hori kontratatu, eta bere ordezt Tomas Zandategikoa azpeitiarra aritu zen. 1549ko ekaina baino lehenago hasi zuen bere jarduna eta oraindik 1552ko irailean irakasle moduan ikusiren

---

(24) Korrejidoreak, irakasleari ordaindutakoa gehiezgikoa zela uste zuen. Ikus *Auñamendi*, aip. lan., 565 orr. eta LASA, J. I., aip. lan., 19-20 orr.

(25) AZPIAZU ELORZA, J. A.; aip. lan.

(26) Abizenagatik diogu, nahiz eta ziur ez gauden. Izan ere, gogoratu behar dugu Erreterian dugun Bergara abizena Nafarroarik (Lesakatik) datorrela.

(27) Gutxienez apirilaren 6tik. Ikus A-1-8, 106 at.-108 au. DIEZ DE SALAZAR, L. M., aip. lan., III. eranskin dokumentala.

(28) Abizen honek Burgos iparraldean dagoen bailaran jatorria badu ere, abizena XV. mendean Oñatin dugu dagoeneko.

(29) EUA, A-1-9, 236 au.

dugu<sup>30</sup>. Azpeitia halako profesionalak bilatzeko bertze leku apropos bat zela dirudi. Bertako Diego Gartzia Lasaokoa 4 urtez kontratatzea eta honek bere titulazioa erakustea horren adierazle dela deritzogu. Baziren, hala ere, bertze hiribildu batzuetatik etorri zirenak: Frantzisko Ezkamendikoa eskribaua, adibidez, tolosarra zen<sup>31</sup>.

Hala ere, **I Taulan** ikus dezakegunez, eta elizgizonak (\*) kenduta, badugu Erreterria bertatik kontratatu zen maisurik, banaka batzuk badira ere. Hor dira geroago aipatuko ditugun Hernando Madrilgoa eta Martin Lesakakoa.

Lehen, gure hiribilduak maisu profesionalak edo jardun horretan esperientzia zutenak kontratatzen zituela aipatu dugu. Horietako hainbat Erreterian aritu aurretik edo ondoren irakasle gisa jardun ziren. Pertsona hauen profesionaltasuna agerian geratzen da honela, ogibide horrek zuen behin-behinekotasuna edo finkapen eskasa islatzen badu ere. Gure kasuan, 1535 urtean eskola-emaile moduan kontratatu zen Santso Etxaburukoa 20 urte beranduago Pasai Donibanen ari zen, eliza “ume askori” eskolak emateko erabiliz<sup>32</sup>. Era berean, Tomas Zandategikoa azpeitiarra bere jaioterrira itzuli eta 1568an oraindik maisu moduan zebilen<sup>33</sup>.

---

(30) EUA, A-1-6, 8 at.-9 au. folk. eta A-1-7 73 at.-74 at. Seguran ere, 1597an maisu azpeitiarra kontratatu zuten. AZPIAZU ELORZA, J. A., aip. lan., 152 orr.

(31) Hala egiten zaio aipamena Esteban Irizarkoak 1539ko irailaren 13an egin zuen testamentuan. Ikus ARChV. Pleitos Civiles, Pérez Alonso, Fenecidos, 1681-2. Harrigarria gerta daiteke, Tolosan maisuari buruzko lehenengo datua 1592koa baita. Ikus *Auñamendi...*, aip. lan., 565 orr. eta GOROSABEL, P.: *Bosquejo de las antigüedades, gobierno, administración y otras cosas notables de la villa de Tolosa*. Tolosa, 1853, Imprenta de la Viuda de Mendizábal, 352-353 orr. (<http://www.ingeba.org/klasikoa/tolosa/index.htm> helbidean kontsultagarri).

(32) Hala aipatzen da Donostiak 1555ean portuko mugarritzea egin zuenean. Ikus GAO-AGG CO MCI 74.

(33) Azpeitiko UA, 1150-19 (Badator-etik ateratako datua). Bertako errejidore ere izan zen hainbat urtetan, 1563 eta 1567an, adibidez. Ikus DIEZ DE SALAZAR, L. M.; eta AYERBE IRIBAR, M.<sup>a</sup> R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa, III (1558-1564. Documentos)*. Donostia, 1990, BBNN-GFA, 405 orr. eta DIEZ DE SALAZAR, L. M.; eta AYERBE IRIBAR, M.<sup>a</sup> R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa, IV (1565-1568. Documentos)*. Donostia, 1990, BBNN-GFA, 273 eta 409 orr.

**I Taula: Erreneriako udal-maisuak (1527-1601)**

IZENA	URTEAK	AUZOTASUNA
Hernando Madrilgoa	1527	Erreneria
Santso Etxaburukoa	1535	
Frantzisko Ezkamendikoa; eskribaua	1540-1542	Tolosa
Pedro Larizkoa	1547	
?	1548 (iraila)?	Elgoibar
Tomas Zandategikoa	1549-1552	Azpeitia
Antonio Bergarakoa	1561-1563	Bergara?
Andres Irazabalgoa	1563-1569	Bergara
Juan Bizkaiakoa; elizgizona*	1566 1567-1590?	Erreneria
Illarregi batxillerra; bikarioa*	1568	Erreneria
Martin Lesakakoa	1569-1570	Erreneria
Juan Tobalinakoa	1572	Bergara
Diego Gartzia Lasakoa	1572-1576	Azpeitia
Andres Irazabalgoa	157?-1583	Bergara
Migel Igartuakoa	1585-1587	Elgoibar
?	1590	Azpeitia
Gaspar Irigoienkoa; bikarioa*	1590?	Erreneria
?	1595	?
Juanes Lizartzakoa	1597-1601	

Irakasle hauen auzotasunak beraien jatorrizko hiribildu edo populazio-guneetan hainbat kudeaketa egiteko aukera eskeini zion Erreneriako udalbatzari. Bertzeak bertze, maisuen jaioterri berekoak ziren auzoek Erreneriari zor zioten dirua kobratzeko. Hala azaltzen da Andres Irazabalgoari 1570eko apirilaren 26an emandako ahalordean, idatzi hau Migel Segurakoa bergararrak udalbatzari zor zion dirua kobratzeko asmoz egin baitzen<sup>34</sup>.

(34) EUA, A-1-6, 164 au. Zehazki, Anton Goizuetakoa elizgizonaren alde egin zuen zentsoagatik zor ziona.

Erran bezala, irakaskuntzaz gain maisuek egiteko ezberdinetan jardun zuten. Batzuetan udalbatzak armak erostera bidaltzen zituen, edo lauzadura lanen azterketa eta kontuak egitera, Tomas Zandategikoa kasu<sup>35</sup>. Irakasleek propio Gortera edo bertze hainbat lekutara joan behar zutela eta, bidenabar udalbatzak leku horietan izan zitzakeen ordezkariari eman beharreko aginduak edo idatziak entregatzeko ere erabiltzen zituen; hau da, mezulari moduan jarduten ziren<sup>36</sup>. Azkenik, eta beraien letradun izaera aintzat hartuz, unibertso honi lotutako lanak burutu zituzten: Hernando Madrilgoa hainbat urtez, eta behin-behinean, udal-eskribau moduan aritu zen, eta Andres Irazabalgoak aldiz, udalbatzak beharrezko zituen hainbat eskrituren kopiak egin zituen, artxiboan gordetzeko asmoz<sup>37</sup>.

Datuak ikusita, Errenteriako kasuan pertsona hauen egiteko nagusia irakaskuntza zela ematen du, baina udalbatzak ez zuen maisu horiek bertze zeregin batzuetan jartzeko aukera galdu. Irakasleei ere halako lanak interesatuko zitzaizkien, hein batean behintzat, diru gehiago lortzeko aukera baitzuten.

Erran bezala, udalbatza zen eskola-emaileak kontratatzen zituena. Idatzi hauetan epea, soldata eta bertze hainbat puntu ezartzen ziren. Errientek titulazio edo formakuntza aldetik bete behar zituzten baldintzak ordea, ez ziren hagitz zehatzak; gero azalduren dugunez, udalbatzak bazuen iraskaleekiko politika edo ardura bat beraien betebeharrak betetze aldera, baina maisuak berak zituen ezaugarriari buruz, egiunetan oinarritzen bagara behintzat, gutxi dakigu. Orokorrean pertsona “onak” edo aproposak izatean datza aipamenik nabarmenena<sup>38</sup>. Hori bai, batzuetan maisuek beraien agiriak edo titulazioa aurkeztu zuten<sup>39</sup>, ziurrenik udalbatzak hala eskatuta.

---

(35) Armetarako, EUA, A-1-7, 21 at.-22 au. folk. (1551ko urriaren 25-a); lauzadura lanetarako, ibidem, 73 at.-74 at. (1552ko irailaren 7-a). Ald. AZPIAZU ELORZA, J. A., aip. lan., 154-156 orr.

(36) Andres Irazabalgoa 1566an bezala. Ikus EUA, A-1-9, 51 au.

(37) Tartean, Añarberi buruzko 256 foliotako auzia. Ikus EUA, A-1-9, 135 at. (1569ko ekainaren 15-a). Ald. ibidem, 143 au. (1569ko irailaren 7-a).

(38) 1563ko apirilaren 6an “*que fuere bueno*” besterik gabe (EUA, A-1-8, 98 at.). Halaber, 1583ko abenduaren batean, maisua kalera bota ondoren “*mandaron se probea por otro que sea bueno y se escriba*” (EUA, A-1-10, 89 at.-90 at.).

(39) Hori da, adibidez, Diego Gartzia Lasakoaren kasua. EUA, A-1-9, 236 au. (1572ko urriak 17).

Irakasleari eskatzen zitzaizkion baldintzak orokorrek baziren ere, prestatuago zegoen pertsona batek formakuntza eskasekoak baino denbora gehiagoan aritzeko aukera handiagoak zituela pentsatzen dugu. Edonola ere, kontratazioari buruz aktetan kontserbatu diren hitzarmenak anitz epe jasotzen dituzte<sup>40</sup>. Tobalina eta Lesaka, adibidez, behin-behinean aritu ziren, hilabete bakar batzuetan edo maisu berriak bilatu artean. Hala ematen du Diego Gartzia Lasakoarekin hitzartutako akordioa ikusiz gero, errient lanetan edo, hobe erranda, udal-eskolatzaile moduan ofizialki azkena aritu zenaren baldintza berdinetan lan egitea adostu baitzen berarekin. Hau da, Tobalina eta Lesaka baino lehenago aritu zen Andres Irazabalgoaren baldintzetan, hain zuzen ere<sup>41</sup>.

Orokorrean, eta ditugun datu apurrak lotuz, maisu lana urtebetez kontratatzen zen, gerora luzapenak egon baziren ere. Batzuetan, gainera, luzadura hauek udalbatzak interesa izan artekoak izan eta beraz, halako egoeratan irakasleek beraien etorkizuna ilun samar ikus zezaketen. Horregatik, behin-behinekotasun hori ikusita, ez litzateke harritzekoa izanen eskola-emaileek jarduna luzatzeko asmoa azaltzen zutenean apeta gutxiko eskaerak egitea, kontratatuko ez zituztelaren beldurrez<sup>42</sup>. Hitzarmen guztien artean ez-ohikoena Diego Gartzia Lasakoarena dugu, 4 urterako izan baitzen. Modu honetan, lan denborak pertsona horrek zuen maila edo prestakuntzarekin zerikusika izan zuelakoan gaude; ez dugu ahaztu behar Diego izan zela, dakigula, bere titulazioa aurkeztu zuen bakarra.

Pentsa genezake hezkuntza hau “kurtsoz” edo mailaz osatuta zegoela, baina errealtatea hagitz bertzelakoa zen. Bertze leku batzutan egutegien inguruan datu eta ideia interesgarriak aipatu dituzte, azpimarragarriena,

---

(40) Ildo honetatik ohartu behar dugu garairako kontserbatzen diren protokoloetan ez dugula kontraturik topatu.

(41) Zehazki, honakoa aipatzen zen: “hizieron llamar al dicho regimiento a los principales que en la dicha villa se allaron, con los cuales comunicado, fueron de parecer de *resçeurirle por tal maese escuela con el salario que se le dio ha Andrés de Yraçabal, vezino de la villa de Vergara, maestre escuela hùltimo que fue en la dicha villa*” (EUA, A-1-9, 236 au.).

(42) Migel Igartuakoa urtebetez kontratatu zuten 1585ean eta 1586ko luzapena udalbatzaren borondatea zen artean egin zen. Juanes Lizartzakoari 1598ko ekainaren 3an egin zitzaion kontratuaren luzapena berriz, urte horretatik geratzen ziren hilabeteentzako luzatu zuten, aurreko urteko soldata eta baldintza berdinekin. Igartuaren kasurako, ikus EUA, A-1-10, 119 au. eta 132 at. folk. Juanes Lizartzakorako, ikus EUA, A-1-7, 114 at. (“*Jhoanes de Liçarça (...) dixo que el año hera pasado de su cargo de maestre escuela e biesen en adelante si querian sirbiese por el mismo salario. Sus merçedes encargaron por este año en que estamos y él sea en cargo con las condiçiones pasadas*”).



zalantzarik gabe, eskolak urte guztian zehar ematen zirelarena<sup>43</sup>. Data, jai edo ospakizun jakin batzuek gain, maisuak urteko egun guztietan burutu behar zuen bere lana. Erretereriako kasuan antzekoa ematen zela deritzogu. Geroago ikusiren dugunez, ume txiroak edozein egunetan matrikulatzen ziren; baina zalantzarik gabe, egutegi gabezia horren adierazle maisu arituko zirenekin hitzartzen ziren itunak ditugu: Diego Gartzia Lasakoak 1572ko azaroaren 1ean hasiko zuen lana; Migel Igartuak, aldiz, 1585eko martxoaren 20an<sup>44</sup>.

Kontratuan beti islatzen zen baldintzetako bat, eskolatzailari etxea eta baratze edo lursail bat ahalbidetzean zetzan<sup>45</sup>. Halako kondizioaren beharra agerikoa da, bereziki irakasle lanetan ziharduten gehienak kanpotarrak zirela kontutan hartzen badugu. Pentsa dezakegunaren kontra, etxe hauek ez ziren udal-ondasunen zati; izan ere, garai honetan udalbatzak oso higiezin gutxi zituen. XVI. mende hasieran, eta berandu arte, ez zegoen ez udaletxe, ez lonja edota kartzelarik, horiek egiteko asmoak behin baino gehiagotan edota aspalditik bazetozen ere<sup>46</sup>. Eskolarekin berdin gertatzen da, nahiz eta 1539ko urriaren Juan Arrieta hargin-maisuari irakaslea biziko den etxea egitea agintzen zaion<sup>47</sup>.

Udal-etxerik ezean, gure agintariak bertako auzotarrenak ziren higiezinak lortzeko kudeaketak egiten zituzten, alokairu baten truke. 1541 urtean Juanes Zubietakoaren etxea aukeratu zen Frantzisko Ezkamendikoarentzat, 6 dukateko

---

(43) Lan egutegia jarraituz. Ikus AZPIAZU ELORZA, J. A., aip. lan., 156 orr. Beste leku batzuetan, Toroko Gramatika Ikastetxean kasu, kurtsua San Lukas egunean hasten zen, urriaren 18an. LORENZO PINAR, Fco. J., aip. lan.

(44) Hurrenez hurren, EUA, A-1-9, 236 au. eta A-1-10, 119 au. folk.

(45) Ziurrenik barazkiak eta oinarrizko jakiak lortzeko. Bertze leku batzutan soldata dirutan eta jenerotan (gari anegak, adibidez) ordaintzen zen, baina Erreterian ez dugu halakorik topatu.

(46) Azpimarragarriena lonjaren kasua da. Ikus IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erretereria a inicios...*, aip. lan., 227-237 orr. eta IDEM: “Erretereria XVI. mende hasieran...”, aip. lan., 60-65 orr. Udaletxerako, ikus HH. EE.: *Erretereriako eriakuntza historikoak. Udaletxea, Madalena ermita, Morrontxo dorrea, Zubiaurre jauregia, Kapitain etxea*. Erretereria, 1997, Erretereriako Udala.

(47) “...[di]xieron que mandaban a maestre Juan de Arrieta que v[...] que haga la casa donde bibe el maestre escuela para que sy neçesydad d’ello, so pena de vn ducado” (EUA, A-1-5, 1 at.; 1539ko urriak 15). Baliteke, dena den, etxe pribatu bat izatea eta udalbatzak higiezina txukundu eta konpontzeko ardura bere gain hartzea. Ana Lopez Irizarkoaren etxea errentan hartu zenean adibidez, berari 10 dukat eman zitzaizkion etxea konpontzeko.

errenta ordainduz<sup>48</sup>. Hurrengo urteetan etxe bera erabili zen ala ez, ez dakigu. Dena den, 1557ko abuztuan maisua Pedro Durangokoa alkatearenera lekualdatu zuten<sup>49</sup>. Andres Irazabalgoari berriz, Martin Jatsukoaren jaraunsleena egokitu zitzaion 1563an<sup>50</sup>. Etxe bera 10 urte beranduago erabili zela uste dugu, Juan Tobalinakoarentzat Antonio Jatsukoaren jaraunsleena zen etxe eta baratzea hartu baitzuten<sup>51</sup>.

Antza denez, Tobalinak erabili zuen edo erabiltzeko aukeratu zen etxe hori ez zen uste bezain aproposa. Diego Gartzia Lasakoa kontratatu eta gutxira, 1572ko azaroan, udalbatzak Ana Lopez Irizarkoarekin hitzarmena egin zuen. Bere etxeagatik 7 dukateko errenta ordainduko zitzaion, eta bertze 10 emateko asmoa agertu zioten higiezin baldintza onetan izan eta hainbat obra burutzearen truke:

“...a razón de syete ducados en cada vn año, pagados en cada vn año y aún que como le dieran luego *para adreçar la dicha casa y abrir vna puerta en la trasera d’ella para los muchachos de la escuela salir al sol y canpo, diez ducados* por vna librança, para que dentro de los dichos quatro años primeros siguientes el dicho Diego García pueda vivir e morar en la dicha casa y en ella tener escuela de mochachos”<sup>52</sup>.

Ez dirudi halakorik egin zuenik, hurrengo urteko uztailen etxe ezberdin bat topatzeko asmoa agertzen baitzen<sup>53</sup>. Hala ere, goiko paragrafoak agerian uzten du umeei ahalik eta heziketa egokiena emateko udalbatzak zituen ardurak eta asmoak.

1585ean Grazia Zubietakoaren etxea hartzea adostu zen, 8 dukateko errentan<sup>54</sup>. 1590 urtean aldiz, Kantalekoa etxea maisuarentzat utz zezan eskatu zitzaion hiribilduko mediku zen Diego Martinez de Enciso lizentziatuari. Eskola-emailearekiko kontratua aste gutxi batzuk lehenago

---

(48) EUA, A-1-5, 161 au. Kopuru hau soldata moduan ezari zenarekin bat dator eta beraz, lantsariaren kontzeptuaren azpian etxearen alokairua zegoela antzeman daiteke. Ald. ibidem, 87 at.

(49) EUA, A-1-3, 112 at. (1557ko abuztuaren 14-a).

(50) Irailak 7. DÍEZ DE SALAZAR, L. M., aip. lan.

(51) EUA, A-1-9, 229 at.-230 au. (1572ko ekainak 19).

(52) EUA, A-1-6, 90 au. eta 91 au.

(53) EUA, A-1-9, 258 au.

(54) EUA, A-1-10, 122 au. (1585eko maiatzaren 18-a).

egin zen<sup>55</sup>, baina ordura arte ez zen etxe erosorik topatu; agidanez, Kantalekoa zen baldintza onenak eskaintzen zituena. Horretarako 8 dukateko errenta ezarri zen berriz ere, sotoa, denda eta lehenengo pisua Encisoren beharretarako mantendu zirelarik<sup>56</sup>.

Etxea eta baratzeaz gain, kasu batzuetan maisuei diru apur bat gehiago ordaindu zitzaizen beraien familia edo beharrezkoak zituzten tresnak Errenteriara ekartzeko laguntza gisa. Helburu honekin 1549ko ekainaren 22an Zandategiri 10 dukat eman zitzaizkion eta 1572an, berriz, zortzi Diego Gartzia Lasakoari<sup>57</sup>.

Lansariari dagokionez, bi ohar egin behar ditugu. Batetik, eta harrigarriena izan daitekeena, berandu arte ez zela halakorik ezarri. Bertzetik, “soldata” kontzeptupean bertze adiera batzuk zeudela. Batzuetan, Ezkamendiren egiunean hitzartu bezala, egunsari moduan adosten zen dirua etxearen alokairua ordaintzeko izaten zen. Baina era berean, lansari bezala ulertzen zena bi gauza izan zitezkeen: maisuari uteroko jardunagatik ematen zitzaiona eta bertzetik, umeen sendiek edo udalbatzak irakurtzen, idazten eta zenbatzen jakiteagatik ordaintzen ziotena.

Ildo honetatik ohar garrantzitsu bat egin behar dugu, 1570 urtera arte errientek eta udalbatzek kontratatutako hainbat profesionalak ez baitzuten soldata finkorik edo, hobe erranda, gobernu-buruek ez zuten finkatuta baldintza hori. Egoera horretan maisuak ez ezik, botikari, mediku, pregoilari edo organo-joleak zeuden<sup>58</sup>.

Urte horretan Elgoibarren bildutako Batzar Nagusien apirilaren 13ko sesioan, Bergarak eskaera egin zuen Domingo Irarragakoa Probintziaren ordezkari moduan Gortera bidaltzeko. Helburua erregearengandik hiri-ondasunak erabiltzeko baimena lortzea zen, udal-maisuari behar den moduko soldata ordaindu beharreko dirua esparru horretatik atera ahal izateko:

“...cómo a causa de que no se dan salarios en las villas y lugares d’esta Provincia a los maese escuelas ay gran falta d’ellos y conbernia que

(55) Otsailaren 14 eta martxoaren 28 artean. Data zehatza ezezaguna zaigu aktaren azken zatia besterik ez delako kontserbatzen. Ikus EUA, A-1-10, 195 au.

(56) Ibidem, 195 au.-at. (1590eko martxoak 28).

(57) EUA, A-1-6, 9 au. eta EUA, A-1-9, 236 au. Azken kasuan dirua “*para que pueda traer su casa y familia*”-rako ematen zitzaion.

(58) Ald. Díez de Salazar, L. M.; eta Ayerbe Iribar, M.<sup>a</sup> R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa, V (1569-1573. Documentos)*. Donostia, 1990, BBNN-GFA, 111-112, 170 eta 223 orr.

hubiese maese escuelas con salarios que se diesen a costa de los concejos. Pidió a la dicha Junta manden poner por capítulo de instrucción a Domingo de Yrarraga para que en nombre d'esta Provincia pida a Su Magestad licencia para que las villas y lugares d'esta Provincia, a costa de los propios de los concejos, puedan dar salario competente a los maese escuelas”<sup>59</sup>.

Donostiak horretarako beharrik ikusten ez bazuen ere, Probintziak aintzat hartu zuen Bergararen proposamena eta Irarragak hainbat kudeaketa egin zituen<sup>60</sup>. Egia da ondorengo urteetako batzarretan ez dela horien inguruko datu askorik ageri, baina badakigu Probintziak eskumen hori erdietsi zuela. Horren adibide dugu Erreterriako udalbatzak 1590eko otsailaren 14an Gortean zeuden Migel Azparrengo, Martin Jatsuko eta Domingo Arbidekoari emandako ahalordea, auzialdi horretan hainbat eginbide egin zituzten. Errege-baimena lortzea zen helburua: batetik Arizmendi litzentziatuari hiribilduko mediku moduan soldata ordaindu ahal izateko; bertetik, eskola-maisu bat kontratatzeke<sup>61</sup>. Azken kasu honetan, errege-baimena eskatzearen arrazoia hagituz argia da: *“pues los dichos salarios an de salir de los propios d'esta dicha villa”*<sup>62</sup>. Hogei urte lehenago Bergarak eskatutakoak lortu zirela ematen du, beraz. Are gehiago, urte gutxiren buruan kudeaketek arrakasta izan zuela uste dugu, izan ere, 1574an Diego Gartzia Lasakoak zegokion soldata ordaintzea eskatu zuenean, Martin Akordakoa alkatea eta Juan Sanz Arbidekoa errejidorea kontra azaldu ziren, horretarako errege-ahalmena behar zela argudiatuz<sup>63</sup>.

Aurreko hamarkadetan berriz, maisuak kobraturen zuen lansariari buruzko datu gutxi ditugu. 1540ko azaroan udalbatzak umeak bilatzeko aukera ematen zion eskolatzailleari, hori bai, adostutako 6 dukatak baino gehiago ordaindu gabe:

(59) Ibidem, 111-112 orr. Neurri honi buruzko aipamenerako, AZPIAZU ELORZA, J. A., aip. lan., 149 orr.

(60) Hori bai, Erreterrian ospatu ziren 1571ko maiatzeko Batzar Nagusietan, Irarragak, soldatak arautzen zituen ordenantza berresteko Probintziak egin zuen informazioa galdu zuela zioen. DíEZ DE SALAZAR, L. M.; eta AYERBE IRIBAR, M.<sup>a</sup> R.: *Juntas y Diputaciones...*, V (1569-1573. *Documentos*), aip. lan., 223 orr.

(61) EUA, A-1-10, 194 at.

(62) Are gehiago, 1597ko kontratuan Juanes Lizartzakoari jarri zitzaion 50 dukatetako soldata lonjaren errentamendutik atera zen. Ald. EUA, A-1-7, 92 au.-93 at. (1598ko martxoak 5).

(63) EUA, A-1-9, 283 au.-at. (1574ko azaroaren 5-a). Eskaera honetan Lasak berak aipatzen zuen Akordarekin bereak eta bi izan zituela, eta alkateak kargutik kendu zuela. Hikamiken atzean benetako arrazoia zein zen, ordea, ez dakigu.

“...sus merçedes asentaron con Francisco d’Ezcamendi, maestre escuela (...) que asy por la falta que tiene y a de tener del complimiento que el çonçejo le tiene prometido como porque asy mismo muestre a los moços de pobres, *que por todo le darán e le aya(n) de dar el çonçejo en cada vn año seys ducados*; y con tanto, procure el mismo de buscar los más moços que pudiere y que el çonçejo no será a cargo de le satisfacer ni pagar más de los dichos seys ducados por pocos que tenga”<sup>64</sup>.

Kasu honetan errientak urtean 6 dukateko soldata duela iduri du, baina ez dugu uste hala izanen zenik. Izan ere, kopuru bera adierazten da 1542ko martxoan maisuaren etxearen errentagatik<sup>65</sup>. Baliteke ordura arte lansaririk ez adostea eta udalbatzak ume txiroen hezkuntza eta etxearen errentamenduagatik ordaintzen zuenaz gain, irakasleen diru iturri nagusia gurasoek ematen zietena izatea. Horrela hobeto ulertzen dira 1540an Ezkamendik berak aurkezten zituen kexuak. Hau da, adostutako umeen erdia baino gutxiago eskolara joaten zenez, eguneroko bizitza ezin zuela aurrera eramán; izan ere, alokairua ordaintzeko lain bertzerik ez zuen izanen<sup>66</sup>.

Dena den, urte batzuen buruan gure hiribilduak lansaria ezartzeko asmoa buruan zerabilela dirudi. 1570eko Batzar Nagusietan Bergarak aurkeztutako eskaera berak bakarrik egin bazuen ere, bere ekimena ez zegoen isolatuta; bertze populazio gune batzuk antzeko ideia zerabilteela deritzogu eta horien artean Erretereria egonen zen. Izan ere, gure hiribilduak halako asmoak urte batzuk lehenago finkatu zituela ematen du, kanpotik zetozen maisuentzat bederen. 1568ko martxoan Irazabalek bere kontratua bete zezatela eskatzen zuenean, Juan Amasakoa hamabi nagusiak ezetz zioen, udalbatzarentzat 45-50 dukatetako gastuak zekartzalako. Iduri du hor soldata eta errentamendua sartzen zirela, izan ere, Irazabalen ordezkari Amasak berak auzotar batek eskola emaile izatea proposatzen zuenean, ume txiroengatik izan ezik, bertze guztiagatik dirurik ez ordaintzea irizten zion. Bere aburuz hobe zen Erretereriako eskola-emaile bat kontratatzea, lansaririk kobratzen ez zuelako:

“despidan al dicho maestre (...) atento que ay otros tan ydóneos y suficiençes (...) que quieren seruir y mosar [sic] a los muchachos d’ella

(64) EUA, A-1-5, 87 at.

(65) Ibidem, 161 au.: “ese día el dicho Juanes de Çubieta entregó a los dichos señores del regimiento vna librança fecha por los ofyçiales del año pasado de seys ducados que le mandaron librar por el alquiller de su casa en que vive Françisco d’Ezcamendi, syn carta de pago d’ella” (1542ko martxoak 15).

(66) Ibidem, 38 au.-at. (martxoak 31).

*sin que la dicha villa les dé cosa alguna de sus propios y rentas, sólo que los muchachos que estubieren en la dicha escuela le paguen lo que es costumbre*<sup>67</sup>.

Diego Gartzia Lasakoari aldiz, urtean 18 dukateko soldata jarri zitzaion 1572an, 4 hilabetero ordainduko zitzaiona<sup>68</sup>. Baina urteek aurrera egin ahala, udalbatza lansaria igotzen joan zen, zerbitzu horrek bere populazioari eskaintzen zizkion onuraz eta garrantziaz jabetu zelarik.

Hasiera batean, 1585eko kontratuan Migel Igartuari 27 dukateko soldata ematea pentsatu zen, etxe eta baratzearekin batera, baina azkenean 12.000 marai ematea erabaki zen; alegia, 32 dukat<sup>69</sup>. 1590 urte hasieran, Azpeititik etorritako maisuarekin 50 dukateko lansaria adostu zen, eta baliteke diru gehiago ematea handik familia eta tresnak ekartzeko<sup>70</sup>. Kopuru hori mende amaieran indarrean zegoen, 1597an Juanes Lizartzakoarekin adostu zen kontratuan adierazi bezala<sup>71</sup>.

Datu hauek guztiak bertze leku batzuetarako eman direnekin alderatu ditzakegu, eta konparaketa bat egin, Errenteriako udalbatzaren edo gizartearen ikuspegia hobeto ulertzeko. Urretxun, 1553an maisuak 2.000

(67) EUA, A-1-9, 103 au.-104 au. (martxoak 17).

(68) Ibidem, 236 au. (urriak 17): "...hizieron llamar al dicho regimiento a los principales que en la dicha villa se allaron, con los cuales comunicado, fueron de parescer de resçeuirle por tal maese escuela (...) E así llamado en el dicho regimiento, asentaron con él a que oviese de residir en la dicha villa por maese escuela por tiempo y espacio de quatro anos cumplidos primeros siguientes, que corren de primero de nobienbre primero venidero d'este presente año. El qual se obligó por su persona e bienes de tener escuela de ler, escriuir y contar en la dicha villa por el dicho tiempo syn hazer avsençia d'ellas, y la dicha villa se obligó y le asentó de salario *en cada vn año diez y ocho ducados por tres terçios, y de le dar más casa y huerta y más de le librar ocho ducados para que pueda traer su casa y familia (...)*, para el dicho efeto.

Y los dichos señores del regimiento de cumplir y pagar al dicho Diego Garçia de Lasao lo de suso contenido y el dicho Diego Garçia de asistir en la dicha villa los dichos quatro años, obligaron a sus personas e bienes e propios e rentas (...) con que no pueda lleuar por cada moço por ler y escribir (más de) un real por cada mes y por el contar otro real, y aya de resçeuir media dozana de moços pobres a medio real, y si más de los dichos seis moços pobres resçibiese, le pagarán a razón como los demás que están dichos de suso".

(69) EUA, A-1-10, 119 au. (1585eko martxoak 20). Kopuru hori dirutan, etxean eta baratzean izanen zen.

(70) EUA, A-1-5, 195 au.; "...*villa çinquenta ducados en cada vn año y casa y huerta (...)* con que para ayuda de la costa que a de tener (...) casa y menaje dende la dicha villa de Azpeytia a esta villa se le pague".

(71) EUA, A-1-7, 92 au.-93 at. (1598ko martxoak 5).

maraiiko soldata zuen ume txiroak hezteko. Hondarribian, aldiz, 1594 urtean lansari gisa urteko 6 dukat eman zitzaizkion (2.250 marai) eta Seguran, 1597an, 40 dukatekoa zen<sup>72</sup>. Antzuolak, 1594an, maisuari 200 erreale ordaintzeko asmoa agertu zuen, 6 hilabetez eskolak emateagatik<sup>73</sup>. Iruñean berriz, 1553-1580 epean 10 eta 25 dukat artean zegoen eta 1580tik aurrera irakasleak 45 edo gehiago kobratzen zituen; Valtierran 16 urrezko dukat hitzartu ziren 1565ean; Lizarran, hirurogei eta laurogei 1592 eta 1597an, hurrenez hurren; Zangotzan, 22 dukat 1580an eta hogeita hamar 1581 eta 1582an<sup>74</sup>. Haron, 1498an, 3.100 maraitakoa zen (8 bat dukat); 1515 urtean aldiz, 4.000ra igo zen (11 inguru)<sup>75</sup>.

XVI. mendearen bigarren erdialdean maisuaren soldata handituz joan zen, 17 urteren buruan ia hirukoiztu zen arte. Honek agerian uzten du irakaslearen geroz eta garrantzia handiagoa. Horregatik, eta jarduera horretara bideratutako hainbat pertsona hezkuntza arloan garapen garrantzitsua zuten gunetatik zetozela jakiteak, horiek errient lanetarako bakarrik hartzen zituela uste dugu, hainbatetan bertze lanetan aritu baziren ere<sup>76</sup>.

Alabaina, honek guztiak ez du erran nahi batzuetan eskola-emaileak beraien lanaren ezegonkortasunaz edo zor zitezkeen estutasunez jakitun ez zirenik. Juan Tobalinakoak irakasle izateko proposamena egin zuenean, eskatzen zuen bakarra etxea eta baratzea zen, ez bertzerik<sup>77</sup>.

---

(72) Urretxuko daturako, AYLLÓN URANZU, A., aip. lan., 175 orr.; Segura eta Hondarribirako, AZPIAZU ELORZA, J. A., aip. lan., 153-154 orr. Hondarribikoa horren kopuru txikia zela ikusita, etxearen errentamenduari aipamena egiten ziola uste dugu.

(73) Ald. DÍEZ DE SALAZAR, L. M.; eta AYERBE IRIBAR, M.<sup>a</sup> R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa, XII (1593-1595. Documentos)*. Donostia, 1990, BBNN-GFA, 320 orr.

(74) Nafarroako kasuetarako, ikus LASPALAS PÉREZ, J.: “Aspectos socio-económicos...”, aip. lan. Ald. GÁRRIZ YAGÜE, M.<sup>a</sup> R., aip. lan., 76-79 orr.; *Auñamendi...*, aip. lan., 565-566 orr.; IDOATE, F.: “Navarra. La enseñanza en Valterra en 1565”. In: LASA, J. I., aip. lan., 61-63 orr.; eta JIMENO JURIO, J. M.<sup>a</sup>: *Navarra. Historia del euskera...*, aip. lan., 79-81 orr.

(75) GOICOLEA JULIÁN, Fco. J.: *Haro: Una villa riojana del linaje Velasco a fines del medievo*. Logroño, 1999, Instituto de Estudios Riojanos, 291-292 orr. Errioxako hiribildu honek hezkuntzan oso interes goiztiarra izan zuen eta ditugun lehenengo datuak 1415ekoak dira.

(76) Ikus LASPALAS PÉREZ, Fco. J.: “Aspectos socio-económicos...”, aip. lan., 183 orr. eta baita LASPALAS PÉREZ, J.: “Las escuelas de primeras letras en Navarra 1550-1650: balance de una investigación en curso”. In: REDONDO, A., aip. lan., 147-160 orr.

(77) EUA, A-1-9, 229 au.-at. (1572ko ekainaren 18-a).

Ildo honetatik, hagitz ulergarria da udal-maisu moduan hiribilduko auzotar gutxi egotea. Izan ere, hiribilduko auzotar zirenei ez zitzairen inolako soldatarik ematen. Hala adierazten da gorago transkribatu ditugun 1568ko Juan Amasakoaren hitzetan. Martin Lesakakoaren kasuan ere hori antzeman daiteke, maisu izateagatik egin zuen soldata eskaerari ezezkoa eman baitzizaion<sup>78</sup>.

Harrigarriagoa da Migel Igartua elgoibartarraren kasua, 1587ko maiatzean udalbatzak kargutik kentzeko erabakia hartu zuenean. Deliberazioa karguan jarraitzeko eskaintzari uko egin ondoren hartu zen, eta proposamen honetan dago guri orain interesatzen zaigun datua; izan ere, udalbatzak soldatarik kobratu gabe jarrai zezan nahi zuen, Erreterriako auzotarra baitzen eta ordura arte hala jardun zelako:

“este día los dichos ofiçiales del dicho regimiento hizieron llamar al dicho regimiento a Miguel de Yartua, maestre escuela, vecino d’ella, e le *sinificaron serbiese de maestre escuela como hasta agora sin salario, por ser veçino*, y el dicho maestre dicho que no podía y [así] le dieron por despedido y él se dio por tal”<sup>79</sup>.

Hau estonagarri gerta dakiguke, Migel izatez kanpotarra zelako. Baina bere kasuak prozesu hagitz interesgarria ematen du aditzera: atzerritar edo hiribildukoak ez zirenen bertakotzea. Migelek auzotasuna urte gutxiren buruan lortzea hiribilduko bizitzan guttiz txertatua zegoelaren seinale ezin hobea da, eta bertan finkatzeko zuen interesa ere islatzen du. Alor instituzionalean izan zuen partaidetza horren adierazle bikaina da. Maila apalean hasi zen, baina pixkanaka garrantzia handiagoko karguetan parte harturen du: 1587an Gurutzada Santuko buldaren biltzaile izendatu zuten; 1588ko maiatzean berriz, maiordomo edo diruzainorde kargua lortu zuen Migel Perez Irizarkoa bere ontziarekin Andaluziara joan zenean, eta urte berean hiltegiko lanen errentatzaile izanen da; beranduago, 1590ean eta 1604an, diruzain izendatua izan zen eta azkenik, 1595ean bere partaidetzaren gorenaldia ikus dezakegu: hamabi nagusi izateaz gain Batzar Nagusietarako prokuradore hautatu baitzuten<sup>80</sup>. Argi dago Erreterrian bizitzeko asmoa zuela, maisu izateari utzi

(78) Ibidem, 140 au.-at. (1569ko abuztuaren 23-a): “ese día paresció en el dicho regimiento Martín de Lesaca e presentó vna petición con que en efecto pide quiere ser maestre escuela y se le dé el salario que al maestre escuela se le da. Sus merçedes dixieron que no avía lugar de dar salario ni recompensa alguna que se daba al maestre escuela pasado”.

(79) EUA, A-1-10, 152 au.-at.

(80) Hurrenez hurren, EUA, A-1-10, 150 at., 170 at.-171 au., 181 au.-at. folk.; A-1-5, 195 au.-at. eta A-1-6, 58 au.



zianeen ere hiribilduko bizitzan parte hartzen jarraitu baitzuen. Jarrera horren adierazle bere ezkontza dugu, hiribilduko auzotar Frantziska del Bruel hartu baitzuen emaztetzat 1595 urtea baino lehenago<sup>81</sup>.

Bera da, zalantzarik gabe, hiribilduz kanpoko irakasle bat gurean txertatzearen adibidea. Kanpoko bertze maisuen kasuetan, aldiz, datu gutxi ageri zaizkigu. Azpimarragarriena Andres Irazabalgoa dugu, zeina 1581ean Madalenako maiordomo izendatua izan zen<sup>82</sup>. Beraz, gehienak iragaitzaz zeudela uste dugu, beraien hezkuntza lanak amaitu ondoren bertze populazio batzuetara joaten zirelarik.

Pentsa dezakegunez, gure auzoek partaidetza handiagoa izan zuten. Dagoeneko Hernando Madrilgoaren adibidea eman dugu eta bere gorabeherak bertze leku batean aipatu direnez, ez ditugu hemen hitzez hitz errepikatuko<sup>83</sup>. Laburbilduz, jatorri kristautu berri eta andaluziarrekoa zen pertsona hau Erreterian auzotartu zen eta bertan eskribau kargua bete zuen, gutxienez 1527 eta 1529 urteetan. Martin Lesakakoa eta Juanes Lizartzakoak zailtasun gehiago dituzte, izen bereko pertsona bat baino gehiago daudelako. Martin Lesakako bat Hondarribiko eskribau moduan ikus dezakegu 1561ean; 1579tik aurrera, aldiz, izen bereko errementaria ageri da. Honela, dokumentazioan Martin Lesakakoa deituriko probestu, kontu ikuskatzaile, Magdalenako maiordomo edo Gabierrotako errentatzaileak topatu daitezke<sup>84</sup>. Guztiak, jakina, ez dira gure protagonista, baina edonola ere ziur gaude maisu izan zena gure hiribilduko auzotarra zela; batez ere, eta lehen aipatu dugunez, kobratu gabe egin zuelako lan. Lizartzari dagokionez, Erreteriaz kanpoko zelakoan gaude; berari buruz oso datu gutxi lortu ditugu eta 1601 urtean kargutik kendu ondoren ez da dokumentazioan ageriko.

Irakaslearena lansari finkorik gabeko ogibidea bazen, 1560-1570era arte ba al zuen soldatarik? Eta hala izatekotan, nondik jasotzen zuen dirua?

(81) Hala egiten zaie aipamena urte horretako urrian. Ikus GPAH-AHPG, 3/2342, f. g. Frantziska, Remon del Bruel atzerritarren alaba zen eta 1579an Santso Tolaretxeakoarekin ezkontuta zegoen; Migel, beraz, bere bigarren senarra zen. Ald. EUA, A-1-10, 13 at.-14 au.

(82) EUA, A-1-10, 48 at.-49 at. 1579rako hiribilduko auzotar eta biztanle moduan azaltzen zaigu (GPAH-AHPG, 3/2341, 69 at.). Bertzei buruz ezer gutxi aipa dezakegu; maisu jardunean dauden denboran bertzelako lanak egiten dituztela bertzerik ez, Zandategi edo Ezkamendi kasu.

(83) IRUJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erretería a inicios...*, aip. lan., 113 eta 466-467 orr.

(84) Martin Lesakako hauei buruz, ikus EUA, A-1-8, 11 at.-12 au., 32 au.-at, 106 at.-108 au.; A-1-9, 109 at., 128 at., 173 au.-at., 210 au.-211 au.; eta A-1-10, 19 au.-20 au. eta 141 at.-142 au.

Datuen arabera, soldata ezean errientek beraien lanagatik eskupekoak izan zituzten, gurasoek beraien semeei irakurri, idatzi edota zenbatzen irakasteagatik ordaintzen zieten, hain zuzen ere.

Halako sariak ohikoak ziren. **II taulan** ikus dezakegunez, leku ezberdinetako dinamika antzekoa da eta lan mota bakoitzagatik kopuru ezberdinak jasotzen ziren. Gure kasuak bertze ezaugarri bat zuen, txiro zirenek eta ez zirenek ordaindu beharrekoa ezberdina baitzen. Pentsa dezakegunez, pobreek hezkuntza merkeago zuten; salbuespenak salpuespen, hileko erreal erdia eman behar zioten eskolatzailari; bertze ikasle guztiek, aldiz, erreal bana.

Tarifa hauek irakurtzen edo irakurtzen eta idazten ikasteagatik ziren; zenbatzea, aldiz, taulan agertu bezala, garestiagoa zen. 1564, 1572, 1585 eta 1590 urteetan irakurtzen edo irakurtzen eta idazteko eskolek erreal bana kostatzen zuten. Zenbatzen ikasteak berriz, lehenengo bi urte haietan bertze horrenbertze balio zuen, baina mende amaieran prezioa 2 errelera igo egin zen<sup>85</sup>. Datuen arabera, eta mendean zehar ordaindu beharreko kopuruak mantendu baziren ere, azken bi hamarka horietatik aurrera prezioek gora egin zuten. Orain aipatu bezala, 1585ean txiro ez zirenek igoera ezagutu zuten zenbatzen jakiteko eskoletan, baina ez ziren bakarrak izan: pobreak ere, aurreko urteetan erreal erdia ordaintzetik erreal bat ordaintzera pasa ziren<sup>86</sup>.

**II Taula: Maisuen soldatak XVI. mendean<sup>87</sup>**

LEKUA	URTEA	IRAKURTZEA	IDAZTEA	ZENBATZEA
Sevilla	XVI. mendea	2 erreal	4 erreal	6 erreal
Burgo de Osma	1534	¼ erreal	½ erreal	
Haro	1535	½ erreal	erreal 1	
Errenteria	1540	erreal 1	erreal 1	
Mallen	1552	½ erreal	erreal 1	

(85) EUA, A-1-8, 126 au.-at.; A-1-9, 236 au.; A-1-10, 119 au. eta 195 au.-at.

(86) Oso ziur ez bagaude ere. 1540 eta 1564ko aipamenetan irakurri, idatzi eta zenbatzen ikastea ezberdintzen ez bada ere, 1572ko urrian irakurri eta idazten jakitea erreal bat kostatzen zen eta zenbatzea, aldiz, “otro real”; azken datu honen arabera, diru kopuru bera dirudi. Are gehiago, 1585ean ere hori ikusten da. Ald. EUA, A-1-5, 38 au.-at.; A-1-8, 126 au.-at.; A-1-9, 236 au.; eta A-1-10, 119 au.

(87) Iturriak: LASPALAS PÉREZ, Fco. J.: “Aspectos socio-económicos...”, aip. lan., 189 orr.; GÁRRIZ YAGUE, aip. lan., 77-78 orr.; eta EUA.

LEKUA	URTEA	IRAKURTZEA	IDAZTEA	ZENBATZEA
Burgo de Osma	1560	½ erreal	erreal 1	
Errenteria	1564	erreal 1	erreal 1	
Valtierra	1565	²⁄₃ erreal	erreal 1	
Laguardia	1570	²⁄₃ erreal	erreal 1	1'5 erreal
Iruñea	1570	²⁄₃ erreal	erreal 1	4 erreal
Errenteria	1572	erreal 1	erreal 1	1 erreal
Azeria	1578	erreal 1	1'5 erreal	
Zangotza	1580	½ erreal	erreal 1	4 erreal
Viana	1581	erreal 1	2 erreal	
Iruñea	1590	²⁄₃ erreal	erreal 1	4 erreal
Errenteria	1590	erreal 1	erreal 1	2 erreal
Lizarra	1592	1'5 erreal	erreal 1	4 erreal
Hondarribia	1594	erreal 1	2 erreal	
Bergara	1596	erreal 1	2 erreal	3 erreal <sup>88</sup>

Maisuek umeen eskola bakoitzagatik jasotzen zuten dirua. Alegia, ikaslea geroz eta gehiagotan joan, irakasleak lansari handiagoak izanen zituen. Hau dela eta, kontrol zorrotz bat ezarri zen, bai maisuaren aldetik baina baita udalbatzaren aldetik ere. Lehenengoarentzat, zegokiona kobratzeko; bigarrenarentzat berriz, irakasleak bere lana ondo burutzen zuen ala ez ikusteko. Gisa honetan, eskola-emaileak txiroen errolda bat aurkezten zuen udalbatzar batean eta hau aztertu ondoren, udal-gobernuak eman beharrekoa adosten zuen. Hala ikus dezakegu 1564ko martxoaren 8an, Andres Irazabalgoarekin<sup>89</sup>.

(88) AZPIAZU ELORZA, J. A., aip. lan., 158-159 orr.

(89) EUA, A-1-8, 126 au.-at.: "...paresció en el dicho regimiento Andrés de Yraçabal, maestre [...] *memoria de los muchachos pobres y huérfanos* [...] regimiento d'esta villa que son nuebe mucha[...] [...]tros por [...]lles quatro meses a [...] haga librança y para adelante corran [...] de primero d'este presente mes de março en [adelante] [...] por el [me]morial de la dicha quenta e librança que [...] los seys mochachos de los nuebe es obligado a then[er] [...] maestre esquela por medio real por mes y los demás por mes, que por todo lo corrido se le debe veynte reales". Maisuek zeramaten kontrolaren inguruan, ikus AZPIAZU ELORZA, J. A., aip. lan., 158-159 orr.

Baina soldata kobratzea ez zen bakarrik umeak eskolara joatearen araberakoa; errientak lana ongi burutzeak ere berebiziko eragina zuen. Umeengan aurrerapausorik ikusten ez bazen, irakasleak bere jarduna espero zenaren kontra burutzen zuen eta ondorioz, gutxiago kobratu zezakeen... ala deus ez. Halako neurriak ez ziren ez-ohikoak eta eskolatzailengan ez ezik, udalbatzak kontratatzen zituen hainbat eta hainbat ogibidetan aplikatzen ziren (medikuak, botikariak, danbolin-joleak eta abar). Honela, behin baino gehiagotan ohartarazi zitzaion irakasleari bere jarduna era aiposean bete behar zuela: 1547 urteko urtarrilaren 26an, Pedro Larizkoari bere betebeharrak bete zitzaion agintzen zitzaion, izan ere “*no doctrinaba a los mochachos, así en su leer y escribir ni hazerles hablar castellano*”<sup>90</sup>. Laritz ez zen izan bere jarduerak fundamenturik gabe bideratu zituen bakarra; Antonio Bergarakoa maisuarekin bertze horrenbertze gertatu zen. Azken honek 1562ko abenduaren 30ean zor zitzaionaren ordainketa eskatzen zuen, baina udalbatzak ordura arte libratutakoa baino gehiago ordainduko ez zitzaiola adierazten zion, arrazoitzat “*poco servicio y doctrina que les da a los niños*” emanen<sup>91</sup>.

Ondorioz, ez da harritzekoa behin baino gehiagotan, eta irakaslea kaleratzeko neurria hartu baino lehen, udalbatzak eskolatzaila bere obligazioak bete zitzaion agintzea. Hauek gainera, ez zeuden eskola munduari lotutak bakarrik, maisuak umeen jarrera eta hezkuntzarekin zerikusia zuten obligazioak ere bazituen. 1552ko urtarrilaren 13an adibidez, maisuari zera adierazten zitzaion: umei agindu ziezela “*no anden de noche, alborotando, ni vayan a tirar piedras con los niños de Lezo*”<sup>92</sup>.

## 2. Umeak

Lehenengo eta behin, eta errepikakorra gerta badaiteke ere, ikasle guztiak mutilak direla aipatu behar da. Hiribilduko eskolan ez dago neskontzako lekuri eta ez dugu, XVI. mendean zehar behintzat, hauek hezteko asmoen inguruko daturik<sup>93</sup>. Baina ikasle guztiak mutilak baziren ere, honek ez du erran

---

(90) EUA, A-1-4, 104 au. Arrazoi honek, gainera, euskararen munduarekin lotzen gaitu, izan ere, eskola horiek mutikoak gaztelaniaz trebatzeko edo hizkuntza horren inguruko oinarritzko ezaguerak izateko oinarritzkoak izanen ziren. Ondorioz, gizarte euskaldun baten aurrean gaudela antzeman daiteke, atzerriarekiko kontaktuak sakonak baziren ere.

(91) EUA, A-1-8, 80 at.


(92) EUA, A-1-7, 32 au.-33 at.

(93) Ald. LASPALAS PÉREZ, Fco. J.: “Aspectos socio-económicos...”, aip. lan., 184 orr. Oihane Oliverik adibide batzuk jasotzen ditu. Ikus OLIVERI KORTA, O.: *Mujer, casa y estamento en la Gipuzkoa del siglo XVI*. Donostia: GFA, 2009, 528 orr., 855 oharra.

nahi emakumeak alfabetizazio edo hezkuntza alorretik at bizi zirenik, edo irakurtzen, idazten edota zenbatzen zekien neskarik ez zegoenik. Kontrakoaren adierazle garbia dira dokumentuetan ikus ditzakegun beraien sinadurak, gutxitan agertzen badira ere. Komentuetara edo erlijio-bizitzara bideratzen zirenetako anitzek ezagutza horiek lortu zituzten<sup>94</sup>. Baina hauez gain laikoak ziren emakume alfabetatuak ditugu. Familia garrantzitsuenetako kideak ziren, ziurrenik oinarrizko ezagutzak hezkuntza pribatu bidez edo familiako kide baten bidez ikasiren zituztenak<sup>95</sup>. Honela, hainbat leinu garrantzitsutan asmo hori agerian uzten da. Hauen artean Ana Lopez Irizarkoa eta Marina Urantzu-La Renteriakoa ama-alabak ditugu: Lehenengoaren sinadura 1560an egin zuen bere testamentuan dugu (**II. irudia**) edota bere etxea maisuarentzako errentan hartu zenean, 1572ko azaroan<sup>96</sup>. Kontrako dokumentua Arizabalo-Granada dorretxeko andre zen Maria Martin Granadakoak eman diezaguke. Bere 1570 urteko apirilko testamentuan XV. mende hasieratik aurrerako hainbat eta hainbat dokumentu jasotzen ditu, batzuetan beraien azalpen zehatzak emanez. Bitxia da halako deskribapenaren ondoren idazten ez zekiela jakitea, baina horrek ez du erran nahi irakurtzen jakinen ez zuenik<sup>97</sup>.

## II Irudia:

Ana Lopez Irizarkoaren sinadura, bere 1560ko testamentuan



(94) Errenteriako kasuan Agustindarren komentua. Hauen hainbat sinadurarako, ikus GPAH-AHPG, 3/2341, *passim*.

(95) Ikus SEGURA GRAIÑO, C., aip. lan., 78-82 orr. eta TAPIA, S., aip. lan., 280-281 orr.

(96) AHPG-GPAH 3/2340, 41 at. (otsailak 16). Hainbat urte beranduago ere ikus dezakegu, hala nola, udalbatzak 1572ko azaroan bere etxearen errentamendua adostu zuenean (EUA, A-1-6, 90 au.-at.). Marinaren sinaduretarako, ikus AHPG-GPAH 3/2341, 118 at.

(97) Ald. IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Errenteria a inicios...*, aip. lan., 462-463 orr. eta bereziki 1648 oharra; IDEM: "Errenteria XVI. mende hasieran...", aip. lan., 144-145, non idazten ez jakitearen ondorioz irakurtzen ez zekiela adierazten genuen eta agiriaren deskribapena bere bigarren senar Eginu eskribauarekin lotzen genuen. Dokumenturako, GPAH-AHPG, 3/2013, 35 au.-41 at.

Gizartearen zati batek udal-eskolara joateko aukera ez bazuen ere, udalak garrantzia eman zion umeak eskolatzeari. Maisuak eskolan zuen ume kopurua horren adierazle dela uste dugu. Aktek honen inguruan hainbat datu eskeintzen dizkigute. 1540ko urtarrilean lehenengo aldiz aipatzen da eskolara joan behar zuten umeen kopurua 60koa zela<sup>98</sup>. Momentu hartan maisu zen Frantzisko Ezkamendikoaren erranetan, ez ziren 30 ere joaten; ondorioz, hilean jaso behar zituen 60 errealetatik (ume bakoitzeko erreal bat) erdia baino gutxiago jasotzen zuen eta hau dela eta, zaila zitzaion eguneroko bizitza aurrera ateratzea. Ordura arte eskolara joatearen gaia oso arautua ez zegoela dirudi, baina errejimenduak hagitz neurri esanguratsua adostu zuen, gurasoek eskolara eraman nahi zituzten umeen errolda bat egitea, hain zuzen ere:

“E luego, los dichos señores alcaldes e regimiento dixieron que Domingo de Leço, alcalde, e los dos jurados e que recorran la villa e que hagan vn padrón de los muchachos que sus padres quieren poner en la escuela, e fecho el dicho padrón que se le dé al dicho maestre escuela e coja su salario por el dicho padrón...”<sup>99</sup>.

Ume kopuru hori ez zen txikia, inondik ere; aitzitik, nahiko altua zela uste dugu. Egari zor ez dakigu Erreterriak garai horretan zenbat biztanle zituen, baina dokumentazioak hiribildua eta bere inguruak 300 etxe-basetzez osaturik zegoela adierazten du, 1.400 bat biztanle<sup>100</sup>. Francisco Javier Laspalas Pérez-ek ematen dituen datuak ikusita, banaz bertzekoa 2.000-3.000 biztanleko maisu bat izatea da eta beraz, gure hiribildua nahiko garrantzitsua zela aitortu daiteke, oinarritzko hezkuntzari dagokionez behintzat. Iruñean mutikoen erroldak kopuru bera zuen XVI. mendeko azken herenean zehar, baina 3 udal-maisu

(98) Ildo honetatik, guk geuk bere garaian egindako baieztapen bat zuzendu beharrean gaude. 1495-1544 Erreterriari buruzko lanean 60 ume horiek txiroak zirela ondorioztatzen genuen, zalantzarik gabe (eta gure helburutik at zegoenez) ondorengo hamarkadetako dokumentazioa kontsultatu ez genuelako. Ald. IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erreterria a inicios...*, aip. lan., 481 orr.

(99) Tresna hauek erabiltzea ohikoa izaten zen, kontrol zorrotzago bat eramate aldera. AZPIAZU ELORZA, J. A., aip. lan., 158 orr.

(100) 1641ean, 1638an frantsesek egindako erasoan 300 etxe suntsitu zirela adierazten da (EUA, A-1-16, 107 au.-114 at.). Urte batzuk beranduago, berriz, 1644an, 30 etxe, 40 basetxe eta beste hainbat udal eraikin altxatuta bazeuden ere, oraindik 200 eraitsita zeudela aipatzen da (EUA, A-1-16, 257 au.-at., 254 au.-255 au.).

Demografia eta irakasleen inguruko datu batzuetarako, ikus GÁRRIZ YAGÜE, M.<sup>a</sup> R., aip. lan., 70-74.

artean banatzen ziren<sup>101</sup>. Arieriako Alkatetza Nagusian berriz, 1578 urtean eskolara joango zirenen ume kopurua 65ekoa zen; hori bai, umeak hiru herritatik zetozen, Ormaiztegi, Itsaso eta Gabiriatik hain zuzen ere<sup>102</sup>.

Erran bezala, egindako lanaren arabera maisuak lansaria eskuratu zezakeen ala ez. Horretarako, urte hasieran eta amaieran umeen ezagutzak neurtzen ziren azterketa baten bidez. Honela, aurrerapausoak egotekotan irakasleari zegokiona ordainduko zitzaion. Aktek datu gutxi ematen dituzte eskolen metodologia edo materieiei buruz, baina umeen eskolen garapena data horietan emandako erregistro bikain batean dugu, bere garaian Luis Miguel Díez de Salazar zenak argitaratutakoa. Bertan eskolara joaten diren ume txiroen azterketa jasotzeaz gain, agerian geratzen da udalbatzak urte amaieran bertze azterketa bat egiteko asmoa zuela: alde batetik umeen aurrerapausoak ikusteko; bertzetik, irakasleak bere betebeharrak ongi betetzen zituen ala ez jakiteko asmoz. Erregistroak honakoa dio:

“- Pedro Aranibar, hijo de Sunbilcho, el qual leýa letreando en vna letra redonda, y es huérfano de padre e madre.

- Yten Martín Pérez de Plazio, hijo de Plazio de Aranaz, defunto, el qual leýa en otra letra rredonda algo mejor que el otro e al cabo del año abría de leer muy bien porque conosçe las letras.

- Yten Tomás de Aristur, hijo de Juanes de Aristur, defunto, e de Maria de Alçate, lee (...) muy bien y escriue onestamente de letra asentada.

- Yten Juanes de Alçate, hijo de Aguirrecho, lee medianamente y escriue en plana grande.

- Yten, Domingo de Çelay, hijo de Burugorria, que está cabtibo en tierra de moros, le muy bien y escriue razonable en plana mayor.

- Yten, Hernando d’Elchalar [sic], moço pequeño, conosçe bien las letras e le bien letreando.

- Yten San Juan de Çubiçar, moço pequeño, está en el abeçé e ba conosçiendo las letras”<sup>103</sup>.

(101) LASPALAS PÉREZ, Fco. J.: “Aspectos socio-económicos...”, aip. lan. Geroago ikusiren dugunez, Errenterian ere hainbat urtetan hiru maisu aritu ziren, baina udal-irakasle moduan beti bakarra egon zen.

(102) AZPIAZU ELORZA, J. A.: aip. lan., 159 orr. Bestalde, badirudi maisuak ahalik eta ume gehien biltzeko asmoa zutela. Salamancan, 1530 urtean, batek 150 mutiko zituen bere kargu. TAPIA, S. de, aip. lan., 278 orr

(103) EUA, A-1-7, 34 au.-35 au. eta Díez DE SALAZAR, L. M., aip. lan.

Azterketa honek hezkuntza eta irakaskuntzaren inguruan datu balio-tsuak ematen dizkigu. Hasteko, adin ezberdinetako umeak zeudela, batzuk bertzeak baino gazteagoak (“*moço pequeno*”). Pentsa daitekeenez, ikasle guztiek ez zuten ezagutza maila bera: batzuk hasierako pausoetan zeuden, abezedarioa ikasten eta hizkiekin trebatzen; bertze hainbatek, berriz, abilezia handiagoa zuten eta hizkiak ondo ezagutzen zituzten (“*letrando*”). Halaber, dokumentuak argi adierazten du banaketa bat dagoela irakurketa eta idazketaren artean. Lehenengo irakurtzen ikasten zen eta ondorengo pausoa idaztean zetzan; hasiera batean, letra larriak egiten jakiten zuten (“*plana grande / plana mayor*”) eta ondoren, letra borobilak edo etzanak<sup>104</sup>. Zoritxarrez zenbatzeari buruz ez digu daturik ematen; ezagutzarik oinarritzkoenak bi esparru horietara mugatzen zirela iduri du.

Ikasle bakoitzaren aurrerapena, jakintza edo garapena udalbatzarrak aztertzen zuen. Hainbat lekutan populazio-guneko zenbaki-eskribau batek hartzen zuen ardura hori. Hemen ez dugu horren berririk, eta balorazioa udalbatzarretan bildutakoek egiten zuten. Dena den, eskribauek bertan parte hartzea edo propio bilera horretara joateko deialdia jasotzea ez litzateke harritzekoa izanen; bertze hainbat kasutan, eztabaidatzen zen gaian eskarmentua, esperientzia edo jakituria handiagoa zuen jendea deitzea ohikoa izaten zen eta ondorioz, umeen maila baloratze aldera eskribau, abokatu edo letra munduari lotutako bertze edozein pertsonaren iritzia jasotzea normala litzateke.

Zein zen umeak ikasten hasten ziren adina eta zenbat urtez ziharduten? Ikerketa ezberdinek honen inguruan hainbat datu ere plazaratu dituzte. Iruñean onartua izateko adinaren batzbestekoa 6-7 bat urtekoa zela dirudi, eta ideia orokor moduan 9 urteak bete baino lehenago oinarritzko jakintza horiek zituztela aipatu da. Jose Antonio Azpiazuk, aldiz, beranduago sar zitezkeela ohartzen du, 13 bat urterekin<sup>105</sup>.

Dokumentazioak ume txiroen matrikulazioak aipatzen dituenean adin gutxikoak direla adierazten du (“*de tierna edad*”). Hala agertzen da Juan Perez Lizarragakoa, Magdalena Samatetekoaren semea, Frantzisko eta Martin Gabiriakoa, Juanes Senperekoa, Maria Juan Eskortzakoaren iloba,

(104) CAUNEDO DEL POTRO, B., aip. lan., 41-42 orr.

(105) Ald. TAPIA, S. de, aip. lan., 280 orr. eta AZPIAZU ELORZA, J. A., aip. lan., 151 orr.



Anton Erretegikoa edo Juan Martin Gaztelukoaren kasuetan<sup>106</sup>. Bertze batzuetan, berriz, adina zehazten den adibideak daude. Modu honetan, onartzen ziren gehienak 8-10 urte bitartekoak ditugu. Datu gehienek hala adierazten dute behintzat: horiek dira Gillen Altzatzekoa (8 urte), Juan Zuri Gaiartzakoa, Maria Ortiz Olazabalgoaren iloba edo biloba (9 urte), edo Tomasa Eskortzakoa seme Pedroren kasuak (10 urte)<sup>107</sup>. Dena den, horrek ez du erran nahi guztiak adin horretakoak zirenik edo urte horietatik beherakoak ikasle moduan aritzen ez zirenik. Halaber, koskortuagoak ere izaten ziren: Juan Ortiz Larraintzargoak, adibidez, 14 urte zituen 1579ko urtarrilaren 28an ikasle txiro moduan onartu zenean<sup>108</sup>.

Alabaina, eskolan sartzeko gutxieneko adin bat zegoela antzematen da. Muga zehazki zein zen ez dakigu baina datuak oso argiak dira, umeak gazteegiak izateagatik errefusatzen baitziren. Hor dugu Juanes eta Onofre Senperekoa anaien kasua. 1562ko martxoan beraien ama Grazia Bastidakoak bien matrikulazioa eskatu zuen; lehenengoari baiezkua eman zitzaion baina bigarrenari aldiz, ez, “*por ser muy pequeño*”<sup>109</sup>.

Bertze leku batzuetan baliabiderik gabeko ikasleak onartzeko modu ezberdin bat zegoen. Honen arabera, populazio-guneetako parrokoek eskatzaileen gizarte egoera egiaztatzeko lana zuten. Bikarioek fedea edo aitortza ematen zuten ume pobre hori umezurtza zela bermatuz, eta meza garaitan hori plazaratzen zuten. Errenteriako kasuan ez dirudi apaizek familia eskatzailearen baldintzen inguruan inolako txosten edo informaziorik burutzen zutenik; dirudienez udalbatzak berak adosten zuen umea txiroen artean matrikulatu behar zen ala ez. Alkate, hamabi nagusi eta errejidoreak ziren eskumen hori zutenak, elizaren inolako eraginik gabe<sup>110</sup>.

---

(106) Hurrenez hurren, EUA, A-1-9, 14 at.; A-1-8, 111 au., 112 at., 113 at. eta A-1-10, 195 at.

(107) Hurrenez hurren: EUA, A-1-8, 57 at. (1562ko uztaila); A-1-9, 28 au. (1565eko abuztuaren 8-a); A-1-10, 38 au. (1580ko uztailaren 28-a); eta A-1-8, 34 au. (1562ko urtarrilaren 13-a).

(108) EUA, A-1-10, 15 au. Halaber, Juan Goizuetakoaren lekukotza dugu, zeinak Errenteriako eskolak 15 urterekin hasi zituela zioen. Iruñean 1551 urtean sortu zen 18 txiroentzako ikastetxean aldiz, 8-13 urte bitartekoak izan behar zuten.

(109) EUA, A-1-8, 43 au.-at. (1562ko martxoak 18).

(110) Horrek ez du erran nahi, lehen eskribauen kasuan aipatu dugun moduan, apaizen edo gaiarekin zerikusia izan zezaketen pertsonen iritzia kontutan hartzen ez zenik.

**III Taula: Eskolan dauden ume txiroak (1552 eta 1586 urteak)<sup>111</sup>**

1552-01-27	1586-08-20
Martin Perez Plaziokoa	Saubada Aranokoaren semea
Tomas Aristurkoa	Saubada Aranokoaren semea (II)
Juanes Altzatekoa	Grazia Azpilkoetakoaren semea
Domingo Zelaingoa	Juana Galataskoaren semea
Hernando Etxalarkoa	Maria Martin Amasakoaren semea
San Juan Zubizarkoa	Magdalena Zuloagakoaren semea
	Senpereren semea
	Magdalena Amasakoaren semea
	Maria Domingo Etxalarkoaren semea

Behin ume hori matrikulan onartuta, maisuari udalbatzaren erabakia jakinarazten zitzaion. Ohikoena halakoak ahoz egitea zen, baina hainbatetan idatziz aditzera eman zen: Juan Lopez Larraldekoa 1578ko maiatzean onartu zenean, Andres Irazabalgoa maisuari erabakia islatzen zuen txarteltxoia ematea adostu zen; hau da, idatziz helarazi zitzaion Larralderen txirotasun egoera<sup>112</sup>.

Badirudi gurasoek urtero matrikulatzea eskatu behar zutela. Hala ematen du Juanes Senperekoaren kasuak, eskolan sartzea bi aldiz eskatu baitzuten, 1562ko martxoan eta 1563ko azaroan, eta bietan onartu zen. Zalantzarriagoa da Juan Perez Nobleziakoaren adibidea, bere inguruan hiru onarpen baititugu: 1570eko abendukoa, 1572ko azarokoa eta 1575eko apirilekoa. Bigarrena eta azkena ez ziren pertsona berdina: bata Katalina Illarregikoaren semea zen eta bertzea aldiz, Maria Martin Illarregikoarena. Nobleziaren adibideak hala ere, ematen dugun ideia islatzen duela uste dugu; hau da, bietako bat hainbat alditan matrikulatu zela. Gure ustetan, 1570 eta 1572koak mutiko bera ziren, 1575ekoa aldiz, izen bereko bertze bat.

Familiaren pobrezia hau edozein unetan irits zitekeen. 1534 urtean Isabela Barcot alarguna zen bere semeen mantenturako eta horietako baten ikasketentzako laguntza eskatzen zuena:

(111) Iturria: EUA, A-1-7, 34 au.-35 au. eta A-1-10, 141 au.-at.

(112) EUA, A-1-10, 2 au. (1578ko maiatzak 28).

“...cómo la mujer del bachiller de Unza [Isabela, alegia] hera benida al dicho conçejo a les pidir que *le socorriesen de alguna cosa para criar sus hijos e para el estudio del hijo que tenía en el estudio*, por los serviçios por el dicho bachiller, su marido, al conçejo fechos...”<sup>113</sup>.

Dakigunez, Isabela ez zen maila apaleko emakumea. Thomas Barcot Bristolgo merkatarri-garraiolariaren alaba zen eta Juan Perez Untza batxillerrarekin ezkondata zegoen; azken hau Hondarribia zein Erreterriako aholkulari edo abokatu gisa jardun zen hainbat eta hainbat urtetan, eta bere formakuntza eta jardunagatik, ez ziren egoera txarrean bizi. Baina, nonbait, senarraren heriotzak gainbehera bat ekarri zuen Isabel eta bere seme-alabentzat, eta udalbatzari laguntza eskatu beharrean aurkitu zen.

Matrikulazioa eskatzen zutenak ez ziren beti gurasoak, senideak edo umearekin nolabaiteko harremana zuen jende heldua. Harrigarria bada ere, hainbat kasutan umeez beraiek egiten zuten eskolara joateko eskaera. Hala gertatu zuen Domingo Zubirikoak 1573ko abenduaren 12an:

“e dixo que él hera huérfano y pobre y quería de aprender a ler y escribir y a sus merçedes suplica le manden dar escuela y al maestro escuela le resçiba a costa d’ella”<sup>114</sup>.

Aurreko lerroetan jarri diren adibide gehienak ume pobre edo txiroei buruzkoak izan dira; izan ere, aktetan hezkuntza jasotzen zuten mutikoen inguruan gehien azaltzen zaizkigun datuak horiei buruzkoak dira. Hau guztiz logikoa da, udalbatzak maila apalenetako hainbat eta hainbat txikiren hezkuntza ordaintzen baitzuen.

Mutiko pobreei eskolak ematearen arrazoia garaiko pentsamoldean guztiz errotutako ideia dugu. Halakorik egiten ez bazen, ume horiek arlote edo alper bihurtzeko arriskua zegoen, eta halako pertsonen gizarte-bakea irauli zezaketen. Gaztelako Koroaren zehar agintarien diskurtsoak eta ideiak bide horretatik zihoazen, bai Iruñean eta baita urrutiagoko guneetan ere, Badajoz kasu<sup>115</sup>. Heziketa morala zen baliabide gutxiko umeen eskolaratzearen helburua. Karitate ekintza bat. Gainera, mutiko probeei

(113) EUA, A-1-4, 13 at.-15 au. (1534ko otsailaren 1-a). Ald. ibidem, 7 au.-9 au. (1534ko urtarrilaren 11).

(114) EUA, A-1-9, 266 au. Dugun adibide bakarra da. Gure ustetan, Domingo nerabezaroaren atean izanen zen (13-15 bat urte) eta bizitzaren gora-beherak irakatsiko zioten hezkuntza batek zuen garrantzia.

(115) Ikus LASPALAS PÉREZ, Fco. J.: “Aspectos socio-económicos...”, aip. lan., 193-194 orr., non Badajozeko alkateak 1598an esaten zituenak jasotzen diren.

halako hezkuntza ematea hiribilduaren mesedetan zihoan<sup>116</sup>. Honela, irakasleak beti izan behar zituen ikasle gisa halako egoeratan bizi ziren umeak. Andres Irazabalgoa bergararrarekin 1563ko irailean hitzartu zen kontratuan, baldintzen artean honakoa zegoen:

“que el dicho maestro aya de tomar y tome a su cargo de mostrar (leer) asta media dozana de pobres huérfanos que no tubiesen con qué pagar, nombrándoselos los tales pobres por el dicho regimiento”<sup>117</sup>.

Hau da, ikaslegoaren %10 inguru hiribilduko gizartearen maila apalenetatik zetorren. Izan ere, Errenteriako kasuan ume txiroak eta halakoak ez zirenak batera ikasten zutela dirudi. Ez du ematen bi taldeek beraien hezkuntza era bananduan jasotzen zutenik<sup>118</sup>.

Bestalde, akordio horretan aipatzen diren dozana erdi ume hori hamarkada bat lehenago ikus dezakegu, 1552ko urtarrilean burutu zen azterketan hain zuzen ere. Baina halako baldintzatan hartutako mutikoak ez ziren beti sei; aitzitik, batzuetan kopuruak gora egin zuen; 1564 eta 1586an, bederatzi ziren matrikulatutako ikasle txiroak<sup>119</sup>. Hau da, onartzen zen ume pobre kopurua seikoa bazen ere, irakasleak gehiago bilatu eta hartzeko aukera zuen. Diego Gartzia Lasakoa azpeitiarrarekin 1572an hitzartutako kontratuan, adibidez, honi 6 baliabide eskaseko mutiko hartu behar zituela ezartzen zitzaion. Baina itunaren arabera kopuru hori gutxieneko bat zen; gehiago hartzeko parada zuen; hori bai, bertzeek ordaintzen zutenaren prezio berean<sup>120</sup>.

Bertze bi datuk dozana erdi hori baino ume haboro zeudela islatzen dute. 1540ko azaroan udalak mutiko txiroengatik urtean 6 dukat ordaintzen zituen. Dukatak 11 erreal balio zituela aintzat hartuz, aipatutako kopuruak hilean 5’5 errealeko gastua zekarren; dakigunez garai hartan ume txiroek ordaindu behar zutena erreal erdia zen eta honela, urte horretan eskolan zeudenak 11

(116) Ume pobreei laguntzearen ildotik, kaxako umeen kasua aztertzea interesgarria litzateke. Aktetan hainbatetan aipatzen dira halako kasuak, baina ez dakigu beraien inñude eta edoskitzaileekin egon ondoren eskolara joan ziren ala ez.

(117) Díez de Salazar, L. M., aip. lan., III. eranskin dokumentala. Txirotasuna eta hezkuntzari buruz, ikus BARTOLOMÉ MARTÍNEZ, B.: “Pobreza y niños marginados en la Edad Moderna”: In: *Historia de la educación. Revista interuniversitaria*, 18 (1999), 33-50 orr.


(118) Ald. LASPALAS PÉREZ, Fco. J.: “Aspectos socio-económicos...”, aip. lan., 185 orr.

(119) Eta halaber, 1552ko otsailean eta martxoan beste bi ume onartu ziren (ikus Eranskina). 1564ko daturako, EUA, A-1-8, 126 au.-at.

(120) “y aya de resçeuir *media dozana de moços pobres a medio real*, y si más de los dichos seis moços pobres resçibiese, le pagarán a razón como los demás que están dichos de suso”. EUA, A-1-9, 236 au.

ume txiro zirela ondorioztatzen da. Bestenaz, 1574ko azaroan Lasiori ume pobreenatik 240 erreal ordaindu behar zitzaizkiola adosten zen. Ordurako irakasleak bi urte zeramatzan eskolak ematen eta, 1572ko kontratuan ezarri bezala, txiroengatik hilean ordaindu beharrekoa erreal erdia zen. Honela hilean 10 errealeko gastua ateratzen da eta hala, lehen begiratuan, baldintza larrietan bizi ziren 20 ikasle zeudela dirudi<sup>121</sup>.

### I Grafikoa: Onartutako ume txiroak (1552-1590) (urteka)



**I Grafikoak** islatzen duenaren arabera, urtean onartzen zen ume txiroen bana bertzekoa 1 eta 2 artean zegoen, baina baziren hiruzpalau onartzen ziren garaiak eta batzuetan 7ra arteko adibideak topatu ditugu<sup>122</sup>. Eskerak edota

(121) 1540rako, EUA, A-1-5, 87 at.; 1574rako, EUA, A-1-9, 283 au.-at. Datu hauek altuegiak iruditzen zaizkigu eta hurbileko kalkulu bezala hartu beharko genituzke. Halaber, José Ramón Cruz Mundet-ek mutiko txiroen kopurua 8-12 artekoa zela dio. Ikus CRUZ MUNDET, J. R.: “Errenteria Aintzinako Erregimenean”. In: JIMENEZ DE ABERASTURI CORTA, J. C. (arg.): *Errenteriako historia*. Errenteria, 1996, Errenteriako Udala, 80-81 orr. (75-152). Egile hau da, orain arte, Aro Berri garaian gure hiribilduko hezkuntzari gehien hurbildu dena.


(122) Baliteke onartzen ziren mutil kopuruaren handitze honek testuinguru ekonomikoarekin zerikusia izatea; hau da, egoerak txarrerantz egiterakoan txiro edo umezurtz moduan matrikulatzeko beharra zuten ume kopuruak gora egitea. Hau dela eta, udalbatza behartuta egonen zen hezkuntza behar hau ume gehiagori bermatzeko. Dena den, hau hipotesi bat baino ez da eta garaiko testuinguru politiko zein ekonomikoa aztertu beharko litzateke.

onarpenak hasierako edo amaierako hilabeteetan egitea zen ohikoena, batez ere azken horietan, 1563ko adibideak ongi islatzen duenez. Urte hartan eman ziren eta dokumentatuak ditugun 7 onarpenak urria eta azaroa bitartean egin zen<sup>123</sup>.

Ikasle guztiak ez ziren txiroak edo gizarte-maila apalekoak. Zoritarrez, eskoletara joaten ziren bertze umeen inguruan apenas daturik dugun. Guraso edo senideek maisuarekin hitzarmen propio bat sinatzen al zuten? Nortzuk ziren familia horiek: merkatariak, arrantzaleak, eskribauak, armadoreak, itsas-maisuak? Hainbat eta hainbat galdera sortzen dira, baina erantzun gutxi eman baditzakegu ere, ez da esparru guztiz antzua.

Garai honetan lehen hezkuntza gutxitan izaten zen doakoa; alegia, gurasoek eskolen mantentzea bermatzeko diru-kopuru bat ordaintzen zuten. Aipatu dugunez maisuak bi aldetik jasotzen zuen lansaria: udalbatzatik eta umeen gurasoengandik. Horretarako, familia bakoitzak berarekin hitzarmen bat sinatzen zuen, baldintza ezberdinak finkatuz.

## II Grafikoa: Onartutako ume txiroak (1552-1590) (hilabetea)



(123) Azken datu honek ere, dozena erdiko ume txiro kopuru horren erlatibotasuna islatuko luke.

Hainbat lanek diotenaren arabera, halako eskriturak eta ogibideak ikasteko adosten zirenak antzekoak ziren. Toron, adibidez, maisuak gai jakin batzuk irakasteko konpromisoa hartzen zuen, orokorrean irakurtzen, idazten eta zenbatzen erakustea. Azken esparru hau aritmetikaren oinarrizko arauak azalduz egiten zen, batzuetan Hiruko Araua ere irakatsiz. Errieta elizgizona edo apaiza bazen, haurrak berarekiko eliz-betebehar batzuk zituen, bertzeak bertze meza ematen laguntzekoa edo prozesioetara joatekoa. Ikasketa epea 1-3 urte artekoa izaten zen; normalean ez ziren 3 urteko epea baino luzeagoak izaten eta gutxieneko denbora urtebetekoa zen. Maisuari ordaintzen zitzaion lansaria ezberdina izan zitekeen: batetik, familien behar edo aukeren arabera; bertetik, baldintzen araberkia. Izan ere, batzuetan irakasleak umea apopilo hartzen zuen eta beraz, jatekoa, edatekoa, janztekoa eta ohea ematen zizkion. Ondorioz, maisuak umeak otsein edo morroi moduan erabil zitzaieken. Azkenik, ordainketa zatika egin zitekeen edo epe bakarrean, baina lehenago haurraren ezagutzak aztertzen ziren; hainbatetan erran dugun bezala, maisuak bere lana betetzen ez bazuen, ez zuen kobratzen.

Gipuzkoa mailan ere halako hitzarmenak ikus daitezke; hor dugu, adibidez, Bergaran 1547ko apirilaren 25ean sinatutako obligazio gutuna<sup>124</sup>. Honen bidez, Ortuño Etxeberrikoa errementari bergararrak Juan Perez Arostegikoa irakasleari urrezko 2 dukat ordaintzeko konpromisoa hartzen zuen, Ortuñoren semeari 4 urtez eskolak ematearen truke.

Zoritxarrez, Errenteriaren kasuan ez dugu honen inguruko dokumentaziorik topatu. Ez dugu familia eta maisuaren arteko kontraturik. Aurkitu dugun datu bakanetarikoa zeharkakoa da. Pedro Lezokoarekin lotuta dago, Pedro Larizkoaren ikasleetako bat. Gure protagonista ez zen edonor: Arizabalo-Granada dorretzeko jabe zen Maria Martinez Granadakoa anderearen eta honen lehenengo senar Pedro Lezokoa ontzigile lezoarraren semea zen. Era berean, gure ikaslearen osaba-izebek inguruetako familia garrantzitsuekin lotura zuten: hala nola Gabiriarrak edo Isastiarrak. Pedrok berak nola-baiteko munta eskuratu zuen, 1567 urte inguruan hil zenean Chapultepec-eko gortolekuko alkaide baitzen. Edonola ere, guri bere ama Mariak 1570ean egin zuen testamentuan aitortzen zuena interesatzen zaigu. Honen arabera, Lariz *“trabajo en ensennar a mi hijo Pedro de Leço”*. Ez dirudi, ordea, ordainketa

(124) GPAH-AHPG, 1/65, 88 au. Ziur gaude halako eskritura gehiago egonen direla, baina guk oinarrizko bilaketa bat besterik ez dugu egin, ideia orokor batzuk emateko.

garaiz egin zuenik; izan ere, 15 dukat zor zizkion eta horren ondorioz bere ondasunetan bahitura egin zitzaion<sup>125</sup>.

Udal-maisuarekin halako idatziak adosterakoan, guraso edo senideek udalbatzak ezarritako baldintzak oso kontutan hartu behar zituzten. Ildo honetatik epearen gaia azpimarratzekoa da. Izan ere, gauza bat da irakasleek udalbatzekin adosten zuten denbora eta bertze bat familiek maisuarekin hitzartzen zutena. Honela, gurasoek udal-eskolatzaile moduan zenbat denborarako kontratatuta egonen zen aintzat hartu beharko zuten, agintariekin hitzartutakoa baino denbora gehiagoz egiten bazuten egoera zaildu zitekeelako. Bertze era batera erranda: umeak errientarekin igaroko zuten denbora, maisuak udalbatzarekin hitzartutakoaren berdina izan behar zuen. Betiere, itunak udal-eskolatzailearekin hitzartzen baziren.

Izan ere, hainbatetan familiek ez zituzten eskritura hauek udal-maisuekin egiten, pribatuekin baizik. Honela, badira beraien umeak udal-eskolez aparte antolatzen zirenetara bidaltzen zituztenak. Askotan halako ekimenak leinu nagusienek bideratzen zituzten, seme (eta alabei) hezkuntza emateko asmoz. Honela, eta udal-maisuak ume kopuru handia bazuen ere, hainbatek beraien semeak irakasle pribatuetara eraman zitzaizketen. Halako kasuak ezagunak dira eta, ikusiren dugun moduan, Erreterria ez zen prozesu honetatik at geratu<sup>126</sup>.

Eskola pribatuak gizartearen maila altuenean zeuden leinuen umeak ikasteko balioko badu ere, Erreterrian jatorri ezberdinetako ikasleek batera ikasten zutelaren irudia antzematen da. Ez dirudi gure artean klasismo moduko bat zegoenik edo ezberdintasunak agerikoak zirenik. Egoera hiritik hirira aldatu zitekeen, baina Erreterriako kasua gertuago ikusten dugu Iruñeakotik, non eskolak ez ziren bereziki elitistak, Santanderrekotik baino. Azken honetan, XVI. mende hasierako hezkuntza oligarkiaren semeei zuzendua zegoela dirudi edo, behintzat, 35 mutiko bertzerik ez hartzea horren isla dela uste dute ikertzaileek<sup>127</sup>.

(125) GPAH-AHPG, 3/2013, B, 38 at. Ikus dezakegunez, irakasleari zor zitzaion diru kopurua urtean zehar eskolengatik eman zezakeena baino handiagoa da. Ziurrenik, hitzarmeneko baldintzak ez betetzeagatik adostutako kopuru bat izanen zen. Ald. LORENZO PINAR, Fco. J., aip. lan.

(126) Ald. LASPALAS PÉREZ, Fco. J.: “Aspectos socio-económicos...”, aip. lan., 195 orr.

(127) SOLORZANO TELECHEA, J. A.: *Santander en la Edad Media. Patrimonio, parentesco y poder*. Santander, 2002, Universidad de Cantabria-Ayuntamiento de Torrelavega, 432 orr. Iruñerako, LASPALAS PÉREZ, Fco. J.: “Aspectos socio-económicos...”, aip. lan., 192 eta 196 orr.



Umeen hezkuntzaren inguruan udalbatzak bazuen nolabaiteko politika bat eta horren garrantziaren isla, dokumentazioan nahiko erregulatasunez errepikatzen den mandatu batean dugu: hau da, umeak eskolaratzearena. Maisua ez zen horren ardura zuen bakarra. Are gehiago, gurasoak umeak eskolara bidaltzea behartuak zeuden, 1557ko abenduaren 15ean agindu bezala<sup>128</sup>.

Lehen Ezkamendik 1540an egin zituen kexuak aipatu ditugu. Ez ziren bakarrak izan. Urte batzuk beranduago irakasleak ildo horretatik zihozen arrangurak aditzera ematen zituen. Honen ondorioz, 1549ko ekainaren 22an udalbatzak erabaki gogorra ezarri zuen<sup>129</sup>. Orduan, ikasleak eskolara bidaltzearen betebeharra elizan pregoatzea erabaki zen, eta horrez gain, helburua lortzeko neurri koertzitiboak ezarri ziren: semea bidaltzen ez zuten gurasoak egun eta gau batez kartzelaratu zituzten eta erreal bateko isuna ordaindu beharko zuten. Era berean, hainbat urte beranduago, 1579ko urtarrilean, antzeko erabakia adostu zen; oraingoan, baina, ez zen kartzela neurririk hartu. Umea eskolara bidaltzen ez zuten gurasoek zergatiaren azalpena eman behar zuten, eta hau entzun ondoren udalbatzak hartu beharreko neurria erabakiko zuen<sup>130</sup>. Era berean, aita-amen ardura ez zen hori bakarrik; lehen eskolatzailarekin adierazi bezala, beraien semeen hezkuntzan zer errana izanen dute. Beraien ardurapean egonen da, bertzeak bertze, Lezoko umeei harrikadak ez ematea<sup>131</sup>.

Mandatu eta erabaki ezberdinek udalbatzak hezkuntza hedatzeko eta sustatzeko helburu hagitz argia zutela erakusten dute, hein batean eta garaiko

---

(128) EUA, A-1-3, 121 au. eta 243 au. Dena den, gogoratu behar dugu mandatu hau ez zela familia guztietara hedatuko; aitzitik, errolda, umeak udal-eskolara bidaltzea nahi zuten sendiena zen.

(129) EUA, A-1-6, 9 au.

(130) EUA, A-1-10, 12 at.-13 at.

(131) Ildo honetatik, interesgarria litzateke garai hartako “haurtzaroari” buruzko azterketa egitea: halako fase bat zegoen ala ez, zenbat irauten zuen edota umeak zertara jolasten zuten. Pasai San Pedron, adibidez, gaztetxoak San Mateteko haritzetan pulunpan aritzen ziren (IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia: hastapenak (XIV-XVI: mendeak)*. Pasaia, 2009, Pasaia Udala, 37 orr.). Erreterian aldiz, harrika egitea ohiko denbora-pasa zela dirudi. Lezoko mutikoeekin izan zitezkeen tirabirez gain, batzuetan udalbatzak jardun horrekin lotura duten erabakiak hartu zituen. 1547ko urtarrilean, adibidez, auzotarrei ahate eta antzarrak etxetik kanpo izateko debekua plazaratzen zuen. Hori ez egitekotan, maisua ahalbidetzen zuten umeei animaliak harrikadak akabatzeko baimena emateko (EUA, A-1-4, 104 au.).

testuingurua nolakoa zen kontutan hartu behar badugu ere<sup>132</sup>. Horregatik, eta zailtasunak zailtasun, mende guztian zehar udalbatzak nahiko ume talde altuari eskolak emateko asmoa agertu zuela dirudi. Dokumentazioan gurasoak beraien umeak eskolara ez bidaltzearen arrazoia aipatzen ez bada ere, ziurrenik lanarekin lotura izanen luke. Nahiz eta hiri-munduko populazio gune bat izan, familia anitz, itsasotik ez ezik, lurretik ere bizi ziren. Hau dela eta, batzuk zein bertzeek beraien umeak garai jakin batzuetan erabiliko lituzkete langile gisa.

### 3. *Hainbat eskola?*

Eskolara ez joatearen inguruko kexuen arrazoia lan munduarekin zerikusia izan zezakeen; hau da, umeek beraien gurasoei lagundu beharko zietela, bai baserrian, dendan, itsasoan edo lantegietan. Baina batzuetan zergatiak leihakortasun bat utz dezake agerian: umeak udal eskolara joaten ez baziren, bertze batera joaten zirelako izan zitekeen. Hainbatetan eskola pribatuek udal-eskolara joan behar zuten umeak beren gain hartzen zituzten, udalbatzaren interesak kaltetuz. Gure kasuan, 40ko hamarkadan azaltzen diren kexuetan ez da ageri halakoan aipamenik, baina handik 20 urtera hiribilduan bertze bizpahiru irakasle zeudela jakinarazten da. Horietako bat Juan Bizkaiakoa zen, 1566ko martxo inguruan eta 20 bat egunez Andres Irazabalgoa maisuaren ordezkotza gisa aritu zena<sup>133</sup>.

Batzuetan eskola hauek emateko udalbatzari baimena eskatzen zitzaion. Bizkaiak berak hori egin zuen 1567ko apirilean, bere etxean apopilo zituen hainbat ume ingelesi irakurtzen eta idazten irakasteko asmoz<sup>134</sup>. Irazabalek halakorik egin ez zedin eskatzen zuen, bera baitzen udal maisu moduan zebilena.

Ia urtebete beranduago, 1568ko otsailean, Irazabalek berak bertze bizpahiru eskola zeudela salatzen zuen. Bere jardunean eragin negatiboa zuen horrek, izan ere beragana ez zen behar adina ume joaten eta ondorioz, ezin zuen bere bizitza aurrera atera:

---

(132) XVI. mendeko egoera hau, XVII. mendean ustez jazo zen beherakadarekin alderatzea egokia litzateke. Ald. LASPALAS PÉREZ, J.: “Aspectos socio-económicos...”, aip. lan., 186 orr.

(133) EUA, A-1-9, 50 au.

(134) Ibidem, 76 at.

“...que como sus merçedes sabían e debían de saber, avía dos o tres esquelas y por la causa él estaba faltoso de moços y andaba alcançado por el poco provecho que d’ello avía”<sup>135</sup>.

Udalbatzak jaramon egin zien irakaslearen hitzei, eta elizgizon edo laikoek, zituzten eskoletan hiribilduko nahiz kanpoko umerik hartu ez zezatela agindu zuen. Erran moduan, hasieran eskola horien inguruko aipamena orokorra bazen, egun gutxiren buruan Irazabalek kopurua hazasten zuen: “*avía otras dos esquelas y se le hiban los moços a él, por cuya causa estaba faltoso de moços su esquila*”<sup>136</sup>. Udalbatza-kideten batek berriz, eskola horien atzetik nortzuk zeuden salatzen zuen. Bi pertsona aipatzen zituen, Juan Bizkaiakoa eta Illarregi batxillerra:

“*sean requeridos el bachiller Yllarregui e don Juan de Vizcaya que no acojan muchachos ningunos, y en defecto qu’están requeridos sus padres y madres de los tales para que no enbían a otra esquila que a la del dicho maestre conforme a la escriptura que esta dicha villa tenía con él y han sido remisos, que de nuevo se les mande cunplan lo mandado so pena de que pagarán para las obras públicas y gastos de justiçia cada dos ducados*”.

Eztabaida honetan udal-ofizial guztiak ez zeuden ados. Juan Amasakoa hamabi nagusiak Irazabalen kontratua bertan behera uztearen aldekoa zen: 40-50 dukat baino gehiagoko gastua zekarkion udalbatzari, eta hiribilduan Irazabal bera bezain onak eta aproposak ziren pertsonak zeuden lan hori burutzeko, Juan Bizkaiakoa tartean. Bistan da, beraz, azken horrek hainbat denbora zeramala jarduera hori betetzen, eta eskarmentua bazuela.

Denbora honetan Irazabal ere arranguratsu agertu zen eskolan izan behar zituen umeak bertzetara joaten zirelako eta, ondorioz, berarekin hitzartutakoa betetzen ez zelako. Urtebete beranduago gaiak bere horretan zirauen eta maisuak honakoari buruz hitz egiten zuen udalbatzaren aurrean: “*sobre el daño que ha tenido por no yr todos los moços a su escuela, pidiendo le hiziesen alguna recompensa sobre ello*”<sup>137</sup>.

Egoera honen aurrean, 1568 bukaeratik aurrera udalbatzak berarekin zuen kontratua berrikusteari ekin zion, hiribilduko abokatuen laguntzaz. Eztabaidak indarrez jarraitu zuen eta Irazabalek behin eta berriz eskatzen zuen ume guztiak bere eskolara joan zitezen. Ikasle gabezia hagitz

(135) Ibidem, 98 at. (otsailak 4).

(136) Ibidem, 103 au.-104 au. (apirilak 11).

(137) Ibidem, 106 au., 132 at. eta 133 au.-at. folk.

nabarmena zen, eta udalbatzak onartu zituen udal-errientaren kexuak. Modu honetan, 1569ko irailean kalteordainak ordaintzea adostu zuen<sup>138</sup>.

Ondorengo hamarkadetan eskola pribatuen inguruko berririk ez dugu, baina mende amaieran gaia islatzen duten datu berriak agertuko dira. 1586ko urtarrilaren 22an, Migel Igartuakoa maisuaren kontratua luzatzea adosten zenean, hartutako neurrien artean zera adierazten zen:

“...que sus merçedes ternían particular quenta de *encargar a los clérigos que recogen algunos moços para que los hechen de sus casas y dibulgarán por la yglesia para que todos los que tubieren hijos enbien a la escuela del dicho maestre y no a otra parte alguna*, de manera que el dicho maestre tenga contento y aprovechamiento como es de razón”<sup>139</sup>.

1590eko martxoan gurasoak beraien umeak udal-maisuarengana bidaltzeko eskatzen zenean, Gaspar Irigoienkoa bikarioak zuen eskola aipatzen zen, baina baita Juan Bizkaiakoak zuena ere<sup>140</sup>. Alegia, primeran islatzen da aginduak agindu, azken horrek ia 25 urtetan zehar eskolak ematen ziharduela.

Argi dago beraz, udal maisuaz gain bertze eskola batzuk jardunean zebiltzala eta hainbat familientzat erakargarriak zirela. Halakorik gertatzeko arrazoietariko bat udalbatzak maisua kontratatzekeo zailtasun edo dinamika irregularra izan zitekeen; hau da, maisua kaleratu eta berria hartu artean denbora dezente igarotzen zela<sup>141</sup>. Eskola pribatu horiek, aldiz, erregularitasun gehiago izanen zuten, bereziki pertsona berdin batek epe mugagabez ematen zituelako.

Zoritxarrez, errandakoez gain ez dugu udal ekimenez kanpo sortutako eskola hauen inguruko datu anitz. Jasotako informazioaren arabera, XVI. mendearen bigarren erdialdean zehar hedatu zirela dirudi eta, hainbat lekutan bezala, eskola horien atzean zeudenak elizgizonak zirela. Maleruski, ez

(138) Guztira, 20 dukat; bai kalteordain moduan baina baita udalbatzak behar zituen hainbat dokumenturen kopiak egiteagatik zor zitzaiona ordaintzeko. Honen guztiaren inguruan, ikus ibidem, 124 at., 132 at., 140 au.-at. eta 143 au.

(139) EUA, A-1-10, 132 at.

(140) EUA, A-1-10, 195 au.-at. (martxoak 28): “...que desde luego mandaban y mandan a todos los vezinos de la dicha villa y abitantes en ella, que los dichos ninos enbien a la escuela del dicho maestre y los pobres agan lo propio beniendo al regimiento a declarar los que lo fueren (...) *Y encargaban, pidían y rogaban al bicario don Gaspar de Yrigoyen y don Juan de Bizcaya, no tengan escuela alguna y despidan los ninos a quienes ensenan para que bayan a la escuela del dicho maestre...*”.

(141) Ald. AZPIAZU ELORZA, J. A., aip. lan., 152 orr.

dakigu zernolako ikasleak zituzten, ezta familia garrantzitsuenetako kideek bultzatutako ekimenak ziren ala ez<sup>142</sup>.

Ildo honetatik, proposamen garrantzitsuenetako bat Maria Martin Granadakoarena dugu. Bere testamentuan adostutakoaren arabera, Granada-Arizabalo dorretxea Jesusen Lagundirako uzten zuen. Zehazki, bere alaba eta suhia ondasun hori eta bertze hainbat saldu edo besterentzeko asmoa agertzen bazuten, dorretxea Oñatin zeuden jesuiten eskuetara pasako zen, beti ere azken hauek beraien bizileku berri moduan hartzen bazuten<sup>143</sup>. Ekimen hau ez zen aurrera atera baina gure ustetan, eta hipotesi hutsa bada ere, Mariaren erabakiari eskola bat antolatzeko kutsua dario.

Bestalde, jakina da familia nagusienek beraien seme-alabak Gaztela zein Nafarroako hainbat populazio-gune batzuetara bidali zitzaizketela (Salamanca, Valladolid, Iruñea...), handikiekin heztera, erlijio bidean sakontzea edota Gortera. Hau da, hiribilduan jasotako ezagutzak osatu eta areagotzea. Baina pauso horrez gain, badakigu gure auzotarrek beraien umeak inguruko (edo Probintzia mailan garrantzia handiagoa zuten) hiribilduetara bidali zituztela oinarritzko ikasketak egitera, tartean Donostiara.

Katalina Idiazabalgoak bere 1540ko testamentuan jasotzen zuenaren arabera, iloba Martin Granadakoan urrezko 7 dukat inguru gastatu zituen, arropetan, zapatetan eta “*en la escuela que le tuve en San Sebastián y en otras partes en más de quatro años y a su maestre que le avezava escriuir e leer e contar*”<sup>144</sup>. Granada-Idiazabal leinua gizartearen goren-gorenean ez bazegoen ere, garrantzitsua zen. Katalina XV. mendean zonaldean garrantzitsuak izan ziren Gabiriarrekin zuzeneko lotura zuen, Fernandorekin ezkondata baitzegoen. Halaber, bigarren senar bezala Bergarako zenbaki-eskribau Juan Gartzia Eginokoa izanen du, Malaga inguruetan merkataritza

(142) Ald. ibidem, 160 orr.; LASPALAS PÉREZ, Fco. J.: “Aspectos socio-económicos...”, aip. lan., 184 orr. eta hh.

(143) “E sy (...) los dichos bienes rayzes e parte alguna d’ellos quisieren vender o enagenar, asy el dicho Doctor Albiz, mi hierno, o doña María de Leço, su muger, mi hija legitima (...) sean en sí ningunos de de ningund valor y efetto las tales enagenaçiones, ventas o troques. Y para en tal caso mando y es mi voluntad que hereden los de la horden de Ihesus que residen en la villa de Onate (...) la dicha mi casa e torre de Ariçabalo y su casería llamada Yparraguirre e las dichas sus dos huertas, digo la del camino de la Trinidad (...) Mando a los dichos de la Horden de Ihesus para que funden en la dicha torre vna yglesia e monesterio de la horden de Ihesus avida liçençia de Su Magestad real, en quien la debieren aber, y con condiçion que se vengan a hazer morada en la dicha torre e yglesia...” GPAH-AHPG, 3/2013, B, 36 at.

(144) GPAH-AHPG, 3/310, 10 at.

interesak zituen leinu bateko kidea, hain zuzen ere. Ildo honetatik, Martinen izen bereko aita Sevilla eta Portugalekin merkatal harreman garrantzitsuak izanen ditu, eta horren erakusle bere testamentua da, hiri andaluziarreko Santa Maria kolazioan egin baitzuen. Katalinaren iloba, beraz, merkatarri familia bateko kidea zen; negozioak handitzeko hezkuntza on batek zuen garrantziaren ideia oso barneratuta izanen zuena<sup>145</sup>.

#### ***4. Erreneria, lekutako ezberdinetako pertsonen hezkuntza-gune***

Erreneriako auzoek beraien semeak inguruko edo urrutiagoko hiribilduetara ikastera bidali zitzaketela ikusi dugu orain. Baina ez dugu ahaztu behar Erreneria ere eskualdeko hainbat eta hainbat populazio-guneentzako puntu erakargarria zela, tartean Nafarroa iparraldeko herrientzat: Goizueta, Arano edo Lesakarentzat, bertzeak bertze. Harreman estu honen lehen arrastoak Erreneriako gizartean ikusten ditugun abizenetan ditugu: Bergara, Bertitz-Oronotz, Goizueta, Hendara, Lesaka, Zubieta... Haeuz gain, merkatal loturek sustatutako dokumentuak dinamika horren adierazle dira: hor ditugu Goizuetarekin bideak konpontzeko ekimen ezberdinak edota 1529an Nafarroako merkatarri garrantzitsuenek Erreneriarekin sinatutako hitzarmena, Nafarroa eta Aragoitik zetorren artilea gure hiribilduan itsasoratzeko asmoz egindakoa<sup>146</sup>.

Normala denez, hartu-eman hau gizarte esparrura zabaldu zen eta ohikoak izanen dira Nafarroa eta Erreneriako biztanleen arteko ezkontza hitzarmenak edota bi aldeetan hainbat eta hainbat familiak edo pertsonak eginen dituzten inbertsioak. Horren inguruan, eta lerro hauetan jorratzen dugun gaiari lotuta, informazio hagitz baliotsua dugu. Goizuetako auzotar zen Juan Alduntzingoak, bere aita Tomas Erreneriara anitzetan joaten zela aitortzen zuen, eta egiten zuenean, “*solía posar en casa de la dicha María Juan de Lastola e de Juan de Goizueta*”. Azken hau izatez goizuetarra zen eta Tomasen urruneko ahaidea. Baliteke harreman estu honen ondorioz Tomasek bere semeak Erreneriara bidaltzeko asmoa agertzea; honela merkataritza zein garraioaren negozioan ikasketak egiteko eta etorkizunean horietan aritzeko aukera eskeiniko zien. Baina Juanen kasuan probetxuzko gizona bihurtzeko asmo horiek haratago joan ziren; izan ere, bere aitari

(145) Eta horrez gain, gorago aipatu dugun Pedro Lezokoaren osaba zen. Granada leinurako, ikus IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erreneria a inicios...*, aip. lan., bereziki 365, 445, 461 eta 585 orr.

(146) *Ibidem*, 369-374 orr.; IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: “Erreneria XVI. mende hasieran...”, aip. lan., 89-94 orr.

Errenteriako eskolan aritzea otu zitzaion. Honela, 1518 urte inguruan, Juanek 15 bat urte zituenean, gure hiribilduan ikasketak jaso zituen. Juanen beraren hitzak dira honakoak: “*qu’el año pasado de mill y quinientos y diez y ocho este testigo solía estar en la escuela aprendiendo ler y escrevir en la dicha villa de La Rentería*”<sup>147</sup>. Datu honek bi lekuen arteko lotura estuaz gain bertze datu garrantzitsu bat agerian uzten du; izan ere, berau da Errenteriako eskolari buruz dugun daturik goiztiarrena.

Bestalde, lehen aipatu dugun Juan Bizkaiakoaren eskaerari so egin behar diogu orain. Inorri ez zitzaion oharkabean igaroko elizgizonak bere etxean apopilo hartuta zituen umeak ingelesak izatea. Harrigarria gerta daiteke atzerritarren inguruko eskaera egitea, baina bertze behin ere garaiko testuingurua aintzat hartuz ulergarria da.

Datu berantiarra bada ere, primeran islatzen du XV. mende amaieratik Errenteriarri (eta Gipuzkoa ekialdeko kostaldeari) ireki zitzaion merkatal eta harreman esparru garrantzitsua: Ingalaterra. Bertako hainbat puntuk Gipuzkoarekin lotura izan zuten, baina zalantzarik gabe Bristol bihurtu zen Donostia, Errenteria eta Hondarribiaren jo-muga lehenetsia. Honela, gureak bertan ikus ditzakegun bezala, hangoak gure artean azalduko zaizkigu; ez hori bakarrik, negozioak burutzeaz gain horietako batzuk bertakotuko dira, gure auzotarrekin ezkondu eta seme-alabak izanen dituzte<sup>148</sup>.

Bostehunaren amaieran, 1565-1580 urte artean, harremanak moteltzen edo txikitzen ari zirela ematen du. Bizkaiaren eskaerak ordea, gezaltze hori erlatiboa zela adierazten du edo, behintzat, oraindik beherakada oso sakona ez zela. Honela, aurreko urteetako dinamika mantentzen zen, eta ez nolana. Izan ere, atzerritarrek gurean beraien seme, senide, otsein edo mirabeak eskolaratzea harreman horren sakontasunaren adierazle ezin hobea da.

---

(147) ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 497-1, 305 at. Beste leku batzuetan Migel izena aipatu dugu Juan-en ordez, baina irakurketa akats bat dela ohartu behar dugu. Ald. IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SANCHEZ, D.: *Errenteria a inicios...*, aip. lan., 480-481 orr. eta IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SANCHEZ, D.: “Errenteria XVI. mende hasieran...”, aip. lan., 99-100 orr.

(148) Ikus, besteak beste, IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SANCHEZ, D.: *Errenteria a inicios...*, aip. lan.; IDEM: “Errenteria XVI. mende hasieran...”, aip. lan.; IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia: hastapenak...*, aip. lan.; IRIXOA CORTÉS, I.: “Atzerritarrak Erdi Aro amaieran: Pasaia badiako populazioen adibidea (XIV. mende amaiera - XVI. mende hasiera)”. In: *BEHSS*, 45 (2012), 15-125 orr. Merkatal harremanetarako ere, ikus BARRIO OLANO, M.; BERASAIN SALVARREDI, I. (arg./ eds.): *Ama Birjinaren Koroatzea erretaula. Errenteriako Jasokundeko parrokia. / El retablo de la Coronación de la Virgen. Parroquia de la Asunción de Errenteria*. Donostia, 2013, Gipuzkoako Foru Aldundia, bereziki 35-47 orr.

Gure artean atzerritarrek jasotzen zuten hezkuntza nola uler daiteke? Alegia, zergatik hezi umeak atzerrian? Hagitz gutxi ikertu da honen inguruan. Baliteke negozioak bideratzeko beharrezkoak ziren hizkuntzak ikasteko era bat izatea. Badakigu merkatalgune garrantzitsuetan itzultzaileak zeudela edota horietan bizi ziren atzerritarrek funtzio hori bete zezaketela<sup>149</sup>. Edonola ere, ume edo nerabe kanpotarrek gurean lehen hezkuntza jasotzea ez da uste bezain ez-ohikoa. 1580ko hamarkadan Donostian halako kasua dugu<sup>150</sup>.

Agidanez, 1584ko lehen hilabeteetan Thomas Short<sup>151</sup> merkatari ingelesak Pedro Ibinagakoaren eskolara bere otsein ingeles bat bidali zuen, John Roman (Joan Romen) izenekoa. Xedea argia zen: “*para que le enseñase a leer y escriuir y lengoa castellana*”.

Guretzako auziaren nondik norakoa garrantzitsua ez bada ere, dokumentuan eskolei buruzko datuak agertzen dira. Bertzeak bertze, Short Ibinagarenera joan eta Roman bertan topatu zueneko:

“fue a casa del dicho maestro Pedro, fue tan solamente a hablar y llamar a Joan Romen, moço ynglés que estaua por comisal con el dicho maestro, para que fuese al muelle y tomase la quenta del trigo que se bendía, al qual dicho Joan Rromen le alló estar escriuiendo con otros moços en el primer sobrado de la dicha casa”.

Lekukoen arabera, Roman ez zen ikasle bakarra; berarekin batera 19 urteko Frantzisko Aldekoakoa bilbotarra eta bertze hainbat ume zeuden. Aldekoak berak aitortzen zuenez, bera Ibinagarekin bizi zen “*comisal y diçipulo para enseñarse en el arte de leer y escriuir y contar*” moduan. John eta Frantziskoz gain, 15 urteko Markos Etxeberrikoa zegoen, hiru urtez eskola horretan zeramana; auzian lekuko agertu zen 18 urteko Juan

---

(149) Bristolen, adibidez, gaztelaniazko itzultzaileak zeuden (VANES, J. (arg.): *Documents illustrating the overseas trade of Bristol in the Sixteenth Century*. Bristol, 1979, Bristol Record Society, 116 orr.). Orain aipaturen den auziaren ildotik, Donostian merkatari ingelesak bere herrikideen itzultzaile moduan aritu zitezkeen. Leku bereko atzerritarrek hiribilduetan beraien herrikideen inguruan biltzeari dagokionez, ikus IRIXOA CORTÉS, I. “Atzerritarrak...”, aip. lan., 99-101 eta 112 orr.

(150) AZPIAZU ELORZA, J. A., aip. lan., 151 orr.; IDEM: *Sociedad y vida social vasca en el siglo XVI: mercaderes guipuzcoanos*. Donostia: Kutxa, 1991, II, 34-35 orr. eta bereziki, GAO-AGG CO ECI 528.

(151) Dokumentazioan “Xurt” moldea nagusia bada ere, batzuetan Hurt, Churt edo Jorge moduan azaltzen da. Egia da “X” eta “J” gaztelaniaz nola ahoskatzen ziren pentsatuz gero, “Hurt” dirudiela “Short” baino, baina baditugu beste hainbat merkatari ingeles “sh = x” soinu hori islatzen dutenak, John “Jiman / Ximan / Xipman” (Shipman) kasu.



Guarnizokoak, aldiz, 1583an utzi zituen ikasketak. Guztiz argitu gabe dago, ordea, Ibinagaren eskolan ume ingeles gehiagorik zegoen ala ez<sup>152</sup>.

Azkenik, badakigu gure artean bizitzen geratu ziren atzerritar horietako batzuk semeak beraien jaioterrietara bidali zituztela. Batzuetan halako adibideak merkatal-jarduerarekin estuki lotuak daude. Hori dugu, zalantzarik gabe, Thomas Barcot-en izen bereko semea, zeinak Londresen ikasi zuen, merkataria artean<sup>153</sup>.

## Ondorioak

Gipuzkoan XVI. mendeko eskolen zein hezkuntzaren mapa eta garapena egiteko badugu ere, aurreko lerroetan argi ikusi da Errenteria hiribildu garrantzitsua izan zela udal-hezkuntza bultzatzerako garaian. Mende hasieratik bere udalbatzak irakasle zerbitzua ezartzeko asmo argiak izan zituen eta Bostehun guztian zehar helburu hori bete zuen. Datuak goiztiarrak izateaz gain, hiribilduko gobernuburuek hamaika erabaki hartu zituzten zerbitzu hori bermatu nahian.

Mendearen azken laurdenean eman zen soldata igoerak agitz ongi islatzen du Errenteriako udal agintarientzako hezkuntzak eskuratu zuen garrantzia. Udalbatzak ardura handia hartu zuen zerbitzua nolabait bermatzeko. Maisuen gehiengo hiribilduz kanpokoa zen, baina gipuzkoarra; beraien artean Bergarako auzotarrak ditugu, hezkuntza aldetik gune garrantzitsu bateko pertsonak, hain zuzen ere.

Zerbitzu horrek neskak alboratzen bazituen ere, gizarte-maila ezberdinetara zuzenduta zegoen. Honela, eskolan familia edo leinu nagusien semeek gain baliabiderik gabeko mutikoak joaten ziren. Udalbatzaren asmoak 60 umeri eskolak ematea zen, sei bat txi-roak izanen zirelarik. Kopuru hau, ordea, teorikoa zen. Datuek islatzen dutenez, hainbatetan pobre kopuru handiagoa izan zen eta era berean, behin baino gehiagotan maisuak kexuak azalduko ditu eskolara joaten ziren mutikoak gutxi zirela ohartaraziz.

Eskolara ez joatearen arrazoia gizartean bertan izan zezakeen oinarria; hau da, urteko garai jakin batean mutikoek beraien familiei lagundu beharko

---

(152) Lekukoan artean Henry Bale agertzen da, 23 urteko londrestarra. Bere hitzen arabera Ibinagarekin bizi da, baina lekukotza hartzen zaionean itzultzailea behar du; are gehiago, auzian zehar Bale Ibinagaren ikasle ez dela aipatzen da.

(153) IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: “Errenteria XVI. mende hasieran...”, aip. lan., 109 orr. eta bereziki, IDEM: *Errenteria a inicios...*, aip. lan., 476 orr.

zietela, batez ere baserri edo landa munduari lotutako horiek. Baina batzuetan arrazoia bertze eskoletara joaten zirela da. Izan ere, udalaren ekimen hezitzaileek konpetentzia bat izan zuen hiribilduko hainbat elizgizonek antolatutako eskolekin. Horiek ez zuten udalbatzaren onespenerik eta beraien jarduna mugatzeko saiakerak egonen badira ere, beraien bidea egin zuten. Juan Bizkaiakoak 25 urtez horrela aritzea horren adierazle da. Hori guztia dugu, ez bairik gabe, gizarte horrek hezkuntzari ematen zion garrantziaren seinale.

Azken ikerkuntzek adierazitakoen ildotik, XVI. mendeko Erretereriak bizi zuen merkatal oparoaldiak hirigune erakargarria bihurtu zuen inguruko zein urrutiagoko gizarteentzat. Nafarroa eta Ingalaterrarekin uztartutako loturek hainbat esparrutan izan zuten beraien isla, baita hezkuntzan ere. Hau dela eta, hango umeak gurean ikasten ikusiren ditugu.

Edonola ere, garrantzia hau dagokion lekuan jarri behar dugu. Garrantzitsua izan zen eta saiakerak arrakasta izan zuten, zalantzarik gabe; baina hau bere osotasunean ulertzeko inguruko hiribilduekin alderatu beharko genituzke; amankomunean zein ezaugarri zituzten edo ezberdintasunak zeintzuk izan ziren.

#### Eranskina: Eskolan onartutako ume txiroak (1552-1590)<sup>154</sup>

DATA	IZENA	GURASOAK	OHARRA
1552-02-17		Maria Ruiz Orozkokoaren semea	
1552-03-09	Juan Letekoa	Maria Ruiz Amizkoaren eta Pedro Letekoa zenduaren sema	
1561-06-??		Maria Hernialdekoak zuen ume txiroa	Bere semea?
1562-01-13	Pedro	Tomasa Eskortzakoaren semea	10 urte

(154) Iturriak: EUA, A-1-7, 38 au.-39 au., 42 at.-43 at.; A-1-8, 7 au.-8 at., 32 at.-33 au., 43 au.-44 au., 57 au.-at., 110 at.-113 at.; A-1-9, 14 at.-15 at., 22 au.-at., 28 au.-29 au., 47 at.-48 au., 111 at.-112 at., 176 au.-177 au., 237 au.-238 at., 258 au.-at., 266 au., 290 au.-at.; A-1-10, 2 au., 6 au.-at., 14 at.-15 au., 25 at.-26 au., 37 at.-38 au., 150 au.-at. eta 195 at.

DATA	IZENA	GURASOAK	OHARRA
1562-03-18	Juanes Senperekoa	Grazia Bastidakoaren semea	Ez da bere anaia Onofre onartzen.
1562-07-??	Gillen Altzatekoa	Juanes Altzatekoa	8 urte
1563-10-06		Maria Martin Gerediakoaren semea	
1563-10-20		Magdalena Samatetekoaren semea	
1563-11-03	Frantzisko Gabiriakoa	Maria Hernandez Lartzabalgoaren eta Esteban Gabiriakoaren semea	
1563-11-03	Martin Gabiriakoa	Maria Hernandez Lartzabalgoaren eta Esteban Gabiriakoaren semea	
1563-11-03	Juanes Senperekoa		
1563-11-03		Maria Juan Eskortzakoaren iloba	
1563-11-10	Anton Erretegikoa	Juanes Erretegikoaren semea eta Luisa Ierobikoaren biloba	
1565-03-14	Juan Migel Lizarragakoa	Juan Perez eta Maria Migel Gamongoaren semea	
1565-03-11	San Juan Murukoa	Laurentza Pikardiakoaren semea	
1565-05-16	Juanes Altzatekoa		
1565-08-08	Juan Zuri Gaiartzakoa		9 urte
1566-02-06	Martin Zabaletakoa	Barbara Montaotekoaren semea	
1568-09-01	Tomas Iradikoa	Tomas eta Katalina Urantzukoaren semea	
1570-12-07	Martin Santxez Altzatekoa		

DATA	IZENA	GURASOAK	OHARRA
1570-12-07	Domingo Zurkoko		
1570-12-07	Juan Perez Nobleziakoa		
1572-10-29	Pedro Narbartekoa	Umezurtza	
1572-11-05	Juanes Arizkunekoa	Martin eta Maria Urdaiarenaren semea	
1572-11-12	Juan Perez Nobleziakoa	Juan Perez eta Katalina Illarregikoaren sema	
1573-07-01	Pedro Ibargoiengoa	Maria Erretegiren semea	
1573-12-02	Domingo Zubirikoa	Domingo Zubirikoaren semea	Umeak berak eskatzen du.
1575-04-??	Juan Perez Nobleziakoa	Maria Martin Illarregikoaren semea	
1578-05-28	Juan Perez Larraldekoa		
1578-07-24	Bernart Txipreskoa	Juanes Txipreskoa eta Ana Intziartekoaren semea	
1579-01-28	Juan Ortiz Larraintzarkoa		14 urte
1579-10-28	Juanes Iparragirrekoa	Maria Juan Azpilkoetakoaren semea	
1580-07-28	Juanes Etxa(...)	Maria Urtitz Olazabalgoaren iloba edo biloba	9 urte
1587-02-18	Gregorio Saratsakoa		
1590-04-05	Juan Martin Gaztelukoa	Juanes eta Maria Urrozkoaren semea	